

# arteka

**ARRAZAKERIA,  
ERREAKZIOAREN  
ABIAPUNTU**



— **A**rrazismoak,  
antikapitalista itxura  
hartzen duenak ere,  
burgesiari aukera ematen dio ez soilik  
eskulana inportatzeko, baizik eta baita  
eskulan hori merkea dela bermatzeko eta,  
gainera, klase ertainaren erreakzio itxuraz  
antikapitalista hauspotzeko ere, nahiz  
eta erreakzio horrek ez duen kapitalisten  
boterea indartu besterik egiten.

# Eduki

---

**6**

---

**10**

---

**28**

---

**38**

---

**EDITORIALA**

*Arteka*

**Erreakzioaren aurrelaria**

---

**KOLABORAZIOA**

Andoni Zabalza

**Higiezinaren arloko  
arrazakeria Hego Euskal  
Herrian: egitura, merkatua  
eta bizitegi bazterketa**

---

**KOLABORAZIOA**

Joanex Artola

**Gazte langileen artean  
faxismoari aurre egiteko  
hausnarketak**

---

**KOLABORAZIOA**

Adam Laamirni

**Begirada bat gaur  
egungo arrazismoari**

# Erreakzioaren aurrelaria

---

## Editoriala

**B**otere jakin baten kontsolidazioak eta esklerotizazioak nahitaez behar du kanpo-etsai artifizioso baten sorrera, neurri handiagoan edo txikiagoan. Halaxe ikusi dugu, esaterako, porrot egin duten edo aurrera egin ezinik gelditu diren prozesu iraultzaileetan: etsai inperialistaren identifikaziora jo dute, barne kontraesanen gaineko autokritika saihesteko bitarteko gisa, kontraesan horiek identifikatu beharrean errealtate inperialistari modu intrintsekoan lotuta dauden elementu gisa, haren barne adierazpen gisa.

Eta joera hori bereziki ikusten dugu burgesiaren botere kapitalista kontsolidatzeko prozesu erreakzionarioetan; izan ere, hura krisian erori eta deskonposatu heinean, ezinbesteko zaio pagaburu bat eraikitzea bere filak unifikatu eta bere boterea gotortzeko. XX. mendearen ezaugarri nagusietako bat, hortaz, polarizazio sozialean datza; lehenik eta behin, arraza-polarizazioan, Mundu Gerraren testuinguruan, eta gerora, gerraostean, bi potentziaren arteko polarizazio politikoan, zeinek jada ez zuten proposamen zibilizatorio antagonikorik aurkezten, baizik eta kapitalismo globalaren kontrapisu-elementu gisa aurkezten ziren, botereari eta mundu mailako egonkortasunari begira.

Ohikoak dira arrazakeriak langile klasearen baitan duen funtzio desintegratzaileari buruzko analisiak, baita gure jarduera politikoaren esparruan ere. Alabaina, horrekin batera komenigarria da azpimarratzea arrazakeriak zer rol betetzen duen subjektu kapitalista, burgesia eta haren inguruan pibotatzen duten klase dirudunetako estratu guztiak unifikatzeko. Krisi kapitalista garaikidean, arrazakeria klase burgesak darabilen estrategia politiko, ideologiko eta kulturala da, helburu izanik bere boterea eraiki eta gotortzea; ez da prozesu sozialaren hondar soila, baizik eta prozesu horren adierazpen kontziente, haren aurrelaria, eta Europako bloke inperialistako krisi kapitalistan aurkitzen du bere funts soziala.

***XX. mendearen ezaugarri nagusietako bat , hortaz, polarizazio sozialean datza; lehenik eta behin, arraza-polarizazioan, Mundu Gerraren testuinguruan, eta gerora, gerraostean, bi potentziaren arteko polarizazio politikoan, zeinek jada ez zuten proposamen zibilizatorio antagonikorik aurkezten***

Klase burgesaren subjektu erreakzionario eta faxistaren kontsolidazioak kanpo-etsai baten artikulazioan aurkitzen du bere funtsa. Ondorioz, migrazio krisia, milioika gizakiren lekualdatze behartua, ez dira ikusten gizarte kapitalistaren eta gure errealitate sozialaren berezko arazo gisa; aitzitik, kapitalaren dinamika globaletik kanpo dauden herrialdeen esportaziotzat jotzen dira. Hala, nahiz eta kasurik onenetan zenbait erreakzionario gai diren migrazioa arazo kapitalista gisa identifikatzeko, ez dute kapitalismoaren dinamikari berezko zaion arazo gisa identifikatzen, baizik eta kapitalistek beren onurarako sorturiko kanpoko arazo gisa. Era horretan, zentro inperialistan, migrazioa kapitalaren interesen onurarako sortuko litzateke, eta posizio antikapitalista bat izateak migratzaileei atea ixtea esan nahiko luke.

Analisi hori, ordea, sakonki arazotsua da. Baliteke kapitalisten sektore jakin batzuek eskulan merkea inportatzeko interesa izatea —aldizkari honen aurreko zenbaki batean aipatu genuen eran, *a priori* ideia hori gatazkatsua eta arrazista da, migratzaileak naturaz eskulan merkeagotzat jotzen baititu eta, ondorioz, baztertu egiten da haiek zentro inperialistako borroka sozial eta politikoetan integratzea—; alabaina, hori ez da kapitalisten interes orokorra, sobera dagoen eskulan asko izateak kapitalari gastu handiagoa baitakarkio, eta, ondorioz, ezin da politika burgesaren eta haren mundu ideologiko eta kulturalaren funtsezko elementutzat jo. Guztiz kontrara, burgesiaren interes nagusia bere

***Krisi kapitalista garaikidean,  
arrazakeria klase burgesak  
darabilen estrategia politiko,  
ideologiko eta kulturala da,  
helburu izanik bere boterea eraiki  
eta gotortzea; ez da prozesu  
sozialaren hondar soila, baizik  
eta prozesu horren adierazpen  
kontzientea, haren aurrelaria***

***Burgesiaren interes nagusia bere botere ekonomikoa kontsolidatzea da, eta horretarako eskulan merkea modu subordinatuan erakarri behar du, bai eta bere botere politikoa kontsolidatzea ere, horretarako subjektu kultural erreakzionario bat eratuta, zeinak burgesiaren boterea irmotuko duen***

botere ekonomikoa kontsolidatzea da, eta horretarako eskulan merkea modu subordinatuan erakarri behar du, bai eta bere botere politikoa kontsolidatzea ere, horretarako subjektu kultural erreakzionario bat eratuta; subjektu horrek bi esferotan irmotuko du burgesiaren boterea: esfera ekonomikoan, eskulanaren kostua merkatzea ahalbidetzen duelako, eta esfera politikoa, subjektu sozial zabala eratzen duelako, geruza erreakzionario handiak integratuta, burgesiaren boterearen zilegiztatzaile.

Hala, arrazakeriak, politika antikapitalistaz mozorrotuta, gizarte kapitalista kontsolidatzeko funtzioa betetzen du, ez soilik modu negatiboan, hau da, proletariotzaren klase batasuna suntsituta, baizik eta baita modu positiboan ere, lehen elementu kontzientea baita politika burgesa gizartean errotuta dagoen eta botere sozial handia duen politika izan dadin; alegia, erreakzioaren aurrelaria da arrazakeria.

Hona hemen adibide bat, horren erakusgarri: II. Mundu Gerran, mundu mailako krisialdi betean, “juduen arazoak” Europako potentzia kapitalista guztiak kezkatzen zituen. Juduen kanporatzeak eta haien kontrako politika arrazistak ezarri ziren hainbat herrialde europarretan. Zalantzarik gabe, maila sozialean, juduak pagaburu ziren, Europako burgesiek beren boterea gotortu ahal izateko — maila politikoa komunismoarekin gertatzen zen hein berean—. Subjektu burges erreakzionarioaren bateratzeak, gerraren eta suntsiketaren bitartez modu gatazkatsuan gauzatu zenak, funtsezko elementutzat izan zituen arraza-gorrotoa eta juduen sarraskia, era horretako politikak modu kontziente

eta orokortuan ageri zirelarik nazismoaren estrategia politikoa. Europako masa zabalek nazismoa babestu bazuten, hori izan zen, besteak beste, krisi kapitalistari erantzun bat ematen asmatu zuelako, potentzia bakoitzaren barne arazoak juduen bizkar utziz eta, komeni zenaren arabera, juduak orain kapitalista eta aberats gisa aurkeztuz, orain komunizatatzat akusatuz.

Elementu kontingente bat edo burutik gaixo zeudenei egotzi beharreko elementu bat izatetik haratago, juduen sarraskiak burgesiaren boterea gotortzeari subordinatutako funtzio bat betetzen zuen, eta nazismoa gizartean zilegiztatzea ahalbidetu zuen. Gaur egun ere, arrazismoak, antikapitalista itxura hartzen duenak ere, burgesiari aukera ematen dio ez soilik eskulana inportatzeko, baizik eta baita eskulan hori merkea dela bermatzeko eta, gainera, klase ertainaren erreakzio itxuraz antikapitalista hauspotzeko ere, nahiz eta erreakzio horrek ez duen kapitalisten boterea indartu besterik egiten. ●

KOLABORAZIOA

# HIGIEZINEN ARLOKO ARRAZAKERIA HEGO EUSKAL HERRIAN EGITURA, MERKATUA ETA BIZITEGI BAZTERKETA

---

Testua — **Andoni Zabalza**

Irudia — **Josu Etxarri**



**H**ego Euskal Herrian, gero eta murriztaileagoa da alokairuko etxebizitza eskuratzeko prozesua. Prezioek gora egiten dute, eskaintzak behera, eta eskuragarri dagoen apartamentu bakoitzeko lehia areagotu egiten da. Baina, dinamika ekonomiko horietatik haratago, isileko praktika multzo bat dago, eta horiek zehazten dute nork aloka dezakeen eta nori ukatzen zaion, sistematikoki, etxebizitza-merkatuak sarbidea. Muga horiek ez dira beti iragarkietan eta kontratuetan agertzen, baina beste modu batean azaleratzen dira: itzuli gabeko deiak, azken orduan bertan behera utzitako bisitak edota modu selektiboan gogortutako baldintzak.

**Z**enbait gizarte erakundek eta datu instituzionalek urteak daramatzate lurralde osoan errepikatzen den patroia seinatzen: pertsona migratuek eta/edo arrazializatuak oztopo eta susmo handiagoei aurre egin behar diete, ateak ixten dizkiete, eta telefonoak eseki. Alokairu merkatuan ez dute soilik diru sarrerek edo lan egonkortasunak eragiten; irizpide informalak, aurreiritziak eta arrisku-pertzepzioak ere badaude tarteko, eta horiek jatorriaren, azentuaren edo larruazalaren kolorearen arabera aktibatzen dira.

Higiezinaren arloko arrazakeria deitu izan zaion fenomeno hori etxebizitza bat eskuratzeko bazterketa-mekanismo indartsuenetako bat bihurtu da. Bere indarra, hain zuzen ere, diskrezioan datza: inoiz gutxi formulatzen da modu argian, baina presente dago uneoro. Gaur egun nola jarduten duen ulertzeko, komeni da haren engranajeak xehatzea eta ikustea nola elkarreragiten duen merkatuaren egiturarekin eta biztanleriaren sektore zabalen prekarietatearekin.

### **HIGIEZINEN ARLOKO ARRAZAKERIAREN FUNTSA GAUR EGUN**

Esan bezala, higiezinaren arloko arrazakeria, oro har, fenomeno sotila da eta, hortaz, zaila identifikatzen, frogatzen eta borrokatzen. Pertsona migratu eta/edo arrazializatuak etxebizitza edo logela bat alokatzeko higiezinaren agentziekin edo partikularrekin harremanetan jartzean gertatzen da; alegia, pertsona horiek jasotzen duten ezezko esplizituan edo ez hain esplizituan azaleratzen da, azalpenik eta ageriko arrazoirik gabeko ezezko horretan. Hala ere, hori ez da sustrai sakonagoak dituen fenomenoaren *momentu bat* baino.

Etxebizitzaren merkatuan, jabeek mekanismo ugari erabiltzen dituzte irabaziak ziurtatzeko eta arriskuak gutxitzeko. Baldintza horiei eusteko, langile klaseari zenbait betekizun exijitzen dizkiote,

eta horiek, askotan, oztopo bihurtzen dira bizitoki bat eskuratzeko. Baldintza horien artean daude gutxieneko diru sarrera eta fidantza handiak, kontratu mugagabeak edo lortzen zaila den dokumentazio osagarria eskatzea. Ohikoa da, halaber, zenbait hilaletzeko errenta aldeztu aurretik eskatzea edo errol-datzeko aukera ukatzea. Gainera, kasu batzuetan, pertsonaren profilaren arabera, etxebizitzak erakusteko modua aldatu egiten da, bisitak segmentatzen baitituzte edota higiezin jakin batzuk erakutsi ez. Laneko behin-behinekotasunak, kontratuaren ezeگونkortasunak edo administrazio oztopoek eragina izan ohi dute hautaketa-prozesuetan, baita hizkuntzaren ezagutzak, azentuak edo azalaren koloreak ere.

Alokairuaren merkatuan, zeinetan etxebizitza erabilgarri baino hautagai gehiago baitaude, jabeek baldintzak ezar ditzakete ondorio esanguratsurik jasan gabe. Erabaki horietan eragina dute, irizpide ekonomikoek ez ezik, baita mehatxuaren pertzepzio *lausoa* eratzen duten aurreiritziek, buloek eta zurrumurruek ere. Ildo horretan, paradigmatikoa da *inquietuparen* figuraren sorrera aski berria: kategoria estigmatizatzailea eta ideologikoa da, oinarri juridikorik gabea, unean uneko ez-ordaintzeak edo kontratu gatazkak usurpazioarekin berdindu nahi dituen, alokairuaren arloko ohiko egoerak ustezko delitu-jokabide bihurtuz. Zaugarritasun ekonomikoa kriminalizatu egin da; ondorioz, gero eta gehiago inbertitzen da segurtasun pribatuan, eta alokairuarekin lotutako gatazketan judizioz kanpoko esku-hartzeetan aritzen diren desokupazio enpresak ugaritu egin dira. Horretarako faktoreetako bat izan da, hain zuzen ere, ahultasun ekonomikoaren kriminalizazioa. Esku-hartzeen artean daude aurrez aurreko bisitak, etengabeko komunikazioak eta bestelako hainbat presio modu, maizterrek etxebizitza utz dezaten edo beren kontratu egoera alda dezaten.

***Etxebizitzaren merkatuan, jabeek mekanismo ugari erabiltzen dituzte irabaziak ziurtatzeko eta arriskuak gutxitzeko. Baldintza horiei eusteko, langile klaseari zenbait betekizun exijitzen dizkiote, eta horiek, askotan, oztopo bihurtzen dira bizitoki bat eskuratzeko***

## ***Hego Euskal Herriko mapari Kapitalaren betaurrekoetatik begiraturaz gero, ez da auzorik edo giza komunitaterik ikusten, higiezin-aktiboen, errenta fluxuen eta balorizazio aukeren sare erraldoia baino***

Testuinguru horretan, migratutako eta/edo arrazializatutako langile klasea desabantaila-egoeran dago merkatu librean eta, ondorioz, alokairuko gelak, etxebizitza partekatuak edo prestazio mugatuak dituzten higiezinak bilatzen dituzte, irtenbide gisa. Horrelako alternatibarik ere ez dagoenean, infraetxeetan bizi behar izatea edo etxebizitza egonkorrik ez izatea —modu erabatekoan edo aldizkakoan— izan daitezke ondorio. Aldi berean, dinamika horiek eremu periferikoetara edo bizitegi eskaintza txikiagoa duten eremuetara bultzatzen dituzte sektore pobretuenak, eta giza talde bakoitzari modu desberdinean eragiten dieten espazio banaketaren patroiak eratzen dira.

Azken batean, logika horiek ez dute soilik determinatzen nor sartzen den etxebizitza batean, baizik eta baita hiriak nola ordenatzen diren eta zein posizio hartzen duen talde bakoitzak horien barruan ere. Horrela, higiezinaren arloko arrazakeriak, itxuraz arruntak eta puntualak diren erabakietatik abiatuta, bizi ibilbideak eta hirien konfigurazioak moldatzen ditu. Mekanismo horiek seinalatzeak eta aztertzeak ahalbidetzen du horiei eusten dien egitura hobeto ulertzea, eta aukera ematen du etxebizitzaren merkatua ikusteko eguneroko gizarte prozesu zabalagoak azaleratzen diren espazio gisa.

### **HIGIEZINEN ARLOKO ARRAZAKERIA HEGO EUSKAL HERRIAN: GERTURAPEN BAT**

Hego Euskal Herriko mapari Kapitalaren betaurrekoetatik begiraturaz gero, ez da auzorik edo giza komunitaterik ikusten, higiezin-aktiboen, errenta fluxuen eta balorizazio aukeren sare erraldoia baino. Etxeak ez dira bizitoki, irabaziak eskuratzeko merkantzia baizik. Eta, egoera horretan, jabearen figurak posizio pribilegiatua du: ondasun urri bat du bere eskuetan, nori eskaintzen dion erabaki dezake, bai eta zein baldintzatan eskaitzen duen ere. Gaitasun diskrezional horretan sortzen eta ugaltzen da higiezinaren arloko arrazakeria.

Marko orokor horretatik abiatuta, zentzuzkoa da biztanleria sozialki nola banatzen den ikus-

tea, merkatu egitura horretan gertatzen baitira klase desberdintasunak eta arraza bereizkeria. EAEn, 2024ko urtarrilaren leian, atzerrian jaiotako 298.422 pertsona bizi ziren, biztanleria osoaren %13,5. Nafarroan, INEren datuekin egindako serie ofizialen arabera, atzerrian jaiotako biztanleak %17,9 ziren 2023an (120.316 pertsona), Estatuko batez bestekoaren (%17,1) gainetik. Hau da, jatorri aniztasuna ez da salbuespen marjinala: Estatutik kanpo jaio da Nafarroan bizi direnen bostena eta EAEko zortzi pertsonatik bat baino gehiago. Hala ere, zifra horiek benetako paisaiaren zati bat baino ez dute erakusten. Hego Euskal Herriko populazio arrazializatua handiagoa da estatistika ofizialetan agertzen dena baino; izan ere, datuek atzerrian jaio direnak bakarrik biltzen dituzte, baina ez hemen jaiotako seme-alabak, ezta nazionalitatea lortu dutenak ere. Bigarren belaunaldiak —Bilbo, Donostia, Gasteiz edo Iruñeko auzoetan hazi diren gazteak— *susmagarritzat* tratatzen ditu oraindik alokairuaren merkatuaren zati handi batek. Eta gauza bera gertatzen da hirugarren belaunaldiekin; izan ere, azken hamarkadetan gizarte sarearen parte dira, baina beren aitona-amonek jasandako arraza-iragazki berberei aurre egiten jarraitzen dute. Nazionalitatea ere ez da babes iturri: milaka pertsonak lortu du Espainiako NANA azken urteotan, baina horrek ez du eragotzi etxebizitza ukatzen jarraitzea abizenagatik, fenotipoagatik edo familia azentuagatik. Horren ondorioz, higiezinaren arloko arrazakeriaren eragina jasaten duen populazio arrazializatuaren benetako pisua ehuneko ofizialek iradokitzen dutena baino askoz handiagoa da, nahiz eta sistema estatistikoak “atzerrian jaiotakoen” kategoria administratibora murrizten jarraitzen duen. Hemen, merkatuan nor sartzen den eta nor ez bereizten duen lerroa ez du dokumentu batek marrazten, begirada batek baizik. Hortik abiatuta, alokairu merkatuaren analisiak aukera ematen du ikusteko nola egitura ekonomiko hori praktika jakin batzuetan islatzen den, zeinak modu desberdinean eragiten baitio talde bakoitzari.



Nafarroako alokairuaren merkatuak jokalekua-  
ren irudi argia eskaintzen du. 2025. urtearen hasieran, 25.278 etxebizitza alokatu zenbatu ziren — soilik kontuan hartuta jabetzat pertsona fisikoak dituztela aitortzen dutenak, eta, beraz, kanpo utzita aitortu gabeko alokairuak eta jabetzat pertsona juridikoak dituztenak—, eta hileko batez besteko prezioa 582,2 eurokoa zen, aurreko urtean baino %7,5 gehiago. Metro koadroko batez besteko prezioa 6,7 eurokoa zen, aurreko urtean baino ia %10 gehiago. Datu horiek grafikoko goranzko kurba bat baino gehiago dira: horrek esan nahi du langile klasearen soldataren zati gorakor bat gutxiengoa den jabetunek osatutako kolektibo baten errenta erreproduzitzeko erabiltzen dela. EAEn ere hazi egin da alokairu merkatua: 2024an, %5,5eko igoera izan da ohiko etxebizitzaren kontratuetan, eta prezioak maila altuetan finkatu dira, bereziki metropoli eremuetan, besteak beste Bilbon edo Donostian. Dinamika horrek zentzu osoa du ikustean nor gelditzen den harrapatuta gero eta handiagoa den presio horren pean.

Dakigunez, alokairuko etxebizitza langileriar soldataren gaineko errenta ateratzeko mekanismoa da. Errenta hori ez da, baina, zuzenean biziraupen biologikora bideratzen den soldata zatiaren gainekoa, lan indarraren erreprodukzio sozialari dago-kiona baizik. Zentzu horretan, higiezinaren arloko arrazakeria errenta hori kudeatzeko teknologia da: erabakitzen du nork pairatuko dituen baldintza txarrenak, nor kanporatuko duen merkatu libre-tik, nork ordaintzen duen gehiago gutxiagotatik, eta nor betirako kondenatu aukeratzera infraetxe baten edo etxebizitzarik ezaren artean. EAEko bizitegi bazterketari buruzko datuek argi eta garbi erakusten dute haustura hori. Bizitegi Bazterkeriaren II. Euskal Estrategiak adierazi zuen 2022ko zenbaketan 3.380 pertsona zeudela etxebizitzarik gabeko egoeran —kalean, aterpetxeetan eta beste baliabide batzuetan zeudenak batuta—, eta hiru hiriburuetan etxerik gabe zeudenen artean atzerriar jatorriko pertsonen ehunekoa %63tik (2016) %78ra (2022) igo zela. Eta EAEn bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen egoerari buruzko VII. azterlaneko (2024) azken datuei erreparatuz gero, joera are nabarmenagoa da. Kalean lo egiten dutenen artean, %86 atzerriar da EAE osoan, eta gaua aterpetxeetan edo gaueko harrera zentroetan igarotzen dutenen artean, berriz, %70. Hori guztia kokatu behar dugu, lehen adierazi bezala, atzerriar jaiotako pertsonak biztanleria osoaren %13,5 baino ez diren autonomia erkidegoan.

2024ko azterlan horrek, gainera, eguneratutako zifra orokorra eskaintzen du: 4.326 pertsona etxerik gabe EAEn, gau berean 30 udalerritan egindako zenbaketaren arabera. Zenbatutako pertsonen %83 atzerriar jaiotakoak ziren —gehienak magrebtar-  
rak—, eta txostenak berak ohartarazten du atzerriar jatorrikoak ez diren pertsonak, proportzioan, oso gutxi direla. Desoreka hain da handia, ezen hori okerreko erabaki indibidualei egoztea funtsik gabekoa baita: biztanleria talde jakin batzuei presio handiagoa eragiten dien sistemaren emaitza metatua da.

Egoera antzekoa da eskala lokaletara jaitsi eta bazterketa hori egunerokoan nola gertatzen den ikustean. Gipuzkoako Caritasek fenomenoaren hurbilagoko erretratua egiten du. 2025eko urtar-  
rrila eta iraila bitartean, erakundeak etxerik ga-



**Higiezinaren arloko arrazakeria lan indarraren erreproduzio sozialari dagokion soldata zatiaren gaineko errenta kudeatzeko teknologia da: erabakitzen du nork pairatuko dituen baldintza txarrenak, nor kanporatuko duen merkatu libretik, nork ordaintzen duen gehiago gutxiagotatik, eta nor betirako kondenatu aukeratzera infaetxe baten edo etxebizitzarik ezaren artean**



beko 1.216 pertsona lagundu zituen lurralde horretan. %93 atzerritarrak ziren, %90 gizonetakoak, eta gehienak 18-44 urteko gazteak. %78,8k ez zuen ostaturik artatu zituztenean, eta, hona garrantzitsuenak, %70 baino gehiago ez zegoen inon errol-datuta. Errol-datuta ez egotea ez da soilik datu administratibo bat: oinarritzeko gizarte eskubideen —besteak beste, etxebizitza laguntzak jasotzeko edo gizarte zerbitzu jakin batzuk eskuratzeko aukera— bazterketa dakar. Erakundeak dio erroldatzea bihurtu dela traba nagusietako bat; helbiderik gabe, ez dago erroldarik, eta erroldarik gabe, ez dago pertsona horien existentzia sozialaren onarpen instituzionalik.

Donostiako kaleetan lo egiten dutenen %95 atzerritarrak dira, bizitegi bazterketaren inguruko zenbaketen arabera. Bilbon, aldiz, %84 dira atzerritarrak. Egoitza-marjinazio muturrekoena ez da gorkio, modu abstraktuan, “euskal gizarteari”, baizik eta langile klasearen segmentu oso zehatz bati: gazte migratzaileak, gehienak gizonak, lan gogorrek eta soldata txarrak dituztenak edo asilo- eta atzerritartasun-burokraziaren tolesturetan harrapatuta geratu direnak.

Datuen eskuragarritasunagatik EAEn fokua jarri ohi den arren, Nafarroan logika alderagarria da eta hainbat baztertze mekanismo aurkezten ditu, halaber. Zenbait gizarte kolektibok ohartarazi dute etxerik gabeko pertsonen kopuruak gora egin duela Iruñean, eta gehienak atzerritar jatorrikoak direla azpimarratu dute. Testuinguru horretan, erroldatu ahal izatea muga administratibo erabakigarria da Nafarroan.



***Ustez eskubideak bermatzen dituen egitura  
instituzionalak berak sozializatzen du, selektiboki,  
miseria: egoera ezegonkorrenean dagoen  
langile klasearen zatia babes sareetatik kanpo  
geratzen da, sarbide unibertsala duen gizarte  
babeseke sistemaren fikzioak dirauen bitartean***

Nafarroako SOS Arrazakeriaren 2024ko Urteko Txostenaren arabera, errolda soziala eskubideen ohiko urraketa-gune bihurtu da. Erakundeak dokumentatu ahal izan ditu erantzunen justifikaziorik gabeko atzerapenak, Administrazioaren isiltasun positiboa ez aplikatzea, nahiz eskaerak berriro aurkezteko eskakizunak —zeinek, kasu batzuetan, hamar hilabete arteko itxaronaldiak eragin baitituzte ebazpena lortzeko—. Era berean, udalerrian benetan bizi direla egiaztatzeko hiru hilabeteko azterketa aldia oro har aplikatzen dela eta hamabost egunean behin udal bulegoetan agertzeko konpromisoak sinatu behar izaten direla salatu du. Baldintza horiek ez zaizkie herritar guztiei eskatzen. Horrela, paperaren gainean izapide ia automatikoa dena, praktikan, mekanismo selektibo bihurtzen da: sistematik kanpo geratzeko askozaz arrisku handiagoa du egoera prekarioan dagoenak, kontraturik gabeko gela batean bizi denak edo etxebizitza pilaketa-baldintzetan partekatzen duenak. Eta Nafarroan, hain zuzen ere, hainbat foru prestazio eskuratzea —alokairurako laguntzak edo etxebizitzarako programa espezifikokoak barne— erregistro horren arabera da.

Horrek esan nahi du ustez eskubideak bermatzen dituen egitura instituzionalak berak sozializatzen duela, selektiboki, miseria: egoera ezegonkorrenean dagoen langile klasearen zatia babes sareetatik kanpo geratzen da, sarbide unibertsala duen gizarte babeseke sistemaren fikzioak dirauen bitartean. Higiezinaren arloko arrazakeria Atzerriarreirei buruzko Legearekin eta errolden tokiko kudeaketarekin korapilatzen da hemen: paperik ez duena, alokairu kontraturik frogatu ezin duena edo espazio informaletan bizi dena arerioatza hartzen da, eta mesfidatza hori oinarritzko eskubideak ukatzeko aitzakia bihurtzen da. Kapitalak gainesplatatuko lan indar hori behar du, baina herritartasu-

naren erabateko onarpena ukatzen dio, eta ukazio horren funtsezko palanka bihurtzen da etxebizitza.

Diskriminazioa ez da soilik muturreko kasuetan, hau da, etxebizitza-gabezia kasuetan, azaleratzen. Ikuspegik, Immigrazioaren Euskal Behatokiak, euskal biztanleek hainbat arlotako diskriminazioari buruz dituzten pertzepzioak aztertu ditu. 2024ko Euskadiko biztanleek diskriminazioaren inguruan dituzten pertzeptzioei eta jarrerai buruzko inkestan (EPADE) adierazten denez, etxebizitza eskuratzeko diskriminazioan eragin handiena duten ezaugarriak dira baliabide ekonomiko txikiak izatea (%66,3) eta atzerriar jatorrikoak izatea –ijitoak izatearekin batera–, eta ezaugarri horiek etxebizitzaren eremuan tratu desorekatua jasotzeari estuki lotuta daude. Adierazgarria da pobrezia- eta jatorriaren arteko konbinazioa bazterketarako nukleo gogorra izatea. Baina ez dago sorpresarik: arraza–edo, hobeto esanda, arrazakeria– langile klasearen barruan segmentuak markatu eta bereizteko modu espezifikoa da, eta arrisku handiagoa egotzen die kapitalak lan merkatuko maila baxuenetara bultzatu dituenen.

EAEko etxebizitzaren paisaiari erreparatzen badiogu, etxebizitza publikoaren eta merkatu pribatuaren arteko kontrasteak ere klase irakurketa du. Alokabidek jakinarazi zuen alokairu babestua- ren eskaintza kudeatutako 16.600 etxebizitzatik gorakoa izan zela 2024an, eta alokairuko etxebizitza babestuen parkea eta gazteei alokairua ordaintzen laguntzeko zenbait programa –besteak beste, Gaztelagun– indartu zirela. Etxebizitza babestuenak, etxebizitza eskuratzeko irizpide arautuak dituenek, jabe indibidualak diskriminatzeko duen gaitasuna formalki murrizten du; baina programa horietarako sarrera ez da neutroa. Berriz ere errolda izatea eskatzen du, bai eta nolabaiteko egonkortasun ekonomikoa izatea eta, kasu askotan, administrazio

## ***Kapitalak gainesplotatutako lan indarra behar du, baina herritartasunaren erabateko onarpena ukatzen dio, eta ukazio horren funtsezko palanka bihurtzen da etxebizitza***

egoera erregularra izatea ere. Alokairu zirkuitu formaletik kanporatu dutena, erroldatzeko oztopoak izan dituen edo Atzerritarrei buruzko Legeak harapatuta dagoena nekez iritsiko da ustez berdintasunetik gertuago dagoen ate horretara.

Nafarroan, errenta bermatuak zailtasunez eusten dio hazten ari den familia migratuen kopuruari, zeinek diru sarrera txikiei, enplegu ezegonkorrari eta pobrezia tasa handiagoei aurre egin behar dieten. Hala ere, babes ekonomiko horrek ez dakar, automatikoki, etxebizitza eskuratzeko. Nasuvinsaren David eta Emanzipa programak —beste zenbaiten artean— alokairu eskuragarriak errazteko pentsatuta dauden arren, familia horietako asko kanpoan geratzen dira, baldintza formalak —kaudimen egiaztagarria, diru sarrera erregularrak, lan kontratu egonkorrak, errenta topeak edo etxebizitza babestuen erroldan alde aurretik inskribatu izana— ez datozelako bat errenta bermatua jasotzen duten familia gehienek lan ibilbide prekarioekin. Gainera, eskatutako egoitza epeek, etengabe erroldatuta egotearen beharrak eta beharrezko dokumentazioaren kargak are gehiago mugatzen dituzte etxebizitza eskuratzeko aukerak. Bazterketa hori larriagotu egiten da, merkatu pribatuak ere iragazki gisa jokatzen duelako: biztanleria migratzaileak aurre egin behar die gero eta arbuio esplizitu gehiagori, berme eskakizun handiagoei eta ezkutuko murrizketei, hots, higiezinaren arloko arrazakeriaren askotariko adierazpenei. Horrela, beren eguneroko bizitzari eusteko errenta bermatuaren mende dauden sektoreak harapatuta daude diskriminatzen dituen eskaintza pribatuaren eta lortzen zaila den eskaintza publikoaren artean; horrek bazterketa-zirkulua indartzen du, zeinetan diru sarre-bermatuak izatea ez baita nahikoa kalitatezko etxebizitza ziurtatzeko.

Bien bitartean, higiezinaren arloko arrazakeriaren makineria pribatuak funtzionatzen jarraitzen du kasik frenorik gabe, jabearen diskrezionalitateak babestuta. Estatu mailan, Provivienda elkartearen “Arrazakeria eta etxebizitzaren alokairuaren segregazioa” txostenak agerian utzi zuen Madrilgo hi-

giezinaren agentzien %99k inolako eragozpenik gabe onartzen zutela migratzaileen aurkako eskakizun diskriminatzaileak aplikatzea: etxebizitza libre egoteari buruzko gezurrak, espresuki atzerritarrei eskatutako berme gehigarriak, edo “etorkinei ez alokatzeko” jarraibide esplizituak onartzea. Eta hori ez da Espainiako Estatu hiriburuan gertatzen den fenomeno isolatua, baizik eta Hego Euskal Herrian gertatzen denaren adierazpen gordina, modu diskretuagoan baina guztiz errealean gertatzen bada ere: kontratu mugagabeak eskatzea era horretako lan kontratuak ia inoiz ez dituzten sektoreei, atzerritarren kontra modu selektiboan erabiltzen diren ez ordaintzeen aurkako aseguruak edo, zuzenean, hitzezko ezetza, bidegabekia baina frogatzen zaila, aurrez aurre edo telefonoz, izan azal koloreagatik, izenagatik edo azentuagatik.

Degradatutako etxebizitza forma horiek errentagarriak dira, hain zuzen ere, alternatiba gutxiko biztanleari aplikatzen zaizkiolako. Hemen, tokiko kapital txiki baten gisa jokatzen du jabetzak, zeinak sektore ahulenen aterpe premia larritik ateratzen baitu gainerrenta. INEren 2024ko bizi baldintzei buruzko inkestak adierazten du estatu mailan 1,4 milioi pertsona baino gehiago diskriminatuta sentitzen direla etxebizitza eskuratzeko orduan, eta diskriminazio horren atzeko arrazoi nagusia jatorri etnikoa edo migratzaile izaera dela. Datu horiek erkidegoka banakatuta ez badaude ere, EAEn eta NFKn ere hautematen den zerbait erakusten dute: alokairuaren merkatuak arrazakeria funtzionala baliatzen du espekulaziorako eta errenten maximizaziorako.

Azkenean, irekitzen edo ixten den ate bakoitzaren atzean, bizi aukerak modu desorekatuan banatzen dituen sistema bat dago. Higiezinaren arloko arrazakeria ez da keinu puntuala, higiezinaren merkatuaren arkitektura zeharkatzen duen logika baizik, erabakitzen duena nor gera daitekeen, nor joan behar den eta nor, zuzenean, kanpoan geratzen den. Kartografia desorekatu horretan, etxebizitzarena da garaiko gizarte mugak hobekien marrazten diren esparruetako bat.



***Etxebizitzaren arloko neurri gehienek klase ertainari mesede egitea dute helburu, hau da, arau aldaketa horiek bultzatzen dituzten alderdien hauteskunde oinarririk handienari. Bien bitartean, sektore proletarizatuenak bigarren mailan geratzen dira***

#### **INSTITUZIOEN JARDUNA: DISKURTSOAK, FILTROAK ETA LEGEAK**

Erakundeen erantzuna tentsio etengabea mugitzen da. Alde batetik, etxebizitza sozialen parkea azpimarratzen da, bizitegi bazterketaren aurkako estrategiak lantzen dira eta etxebizitza eskubidea aipatzen da. Bestetik, herritar migratzaileek eskubide horiek eskuratzea oztopatzen duten lege eta praktika administratiboak mantentzen eta aplikatzen dira: egoera administratibo erregularrean egoteko eskakizunak, errelokatu daitezkeen erroldak, betetzeko zailak diren errolda baldintzak. Emaiza, gorago esan bezala, diskurtso bikoitza da: unibertsaltasuna aldarrikatzen da, baina iragazkiz jositako egitura bat antolatzen da, lan indarraren zatirik prekarizatuenak periferian jarraitzea bermatzen duena, betiere eskuragarri erabili eta botatzeko eskulan merkea behar duten sektoreentzat; erre-serbako industria armada bat.

***Madrilgo higiezinaren  
agentzien %99k  
inolako eragozpenik  
gabe onartzen  
dute migratzaileen  
aurkako eskakizun  
diskriminatzaileak  
aplikatzea. (...) Eta  
hori ez da Espainiako  
Estatuko hiriburuan  
gertatzen den fenomeno  
isolatua, baizik eta  
Hego Euskal Herrian  
gertatzen denaren  
adierazpen gordina***

Izan ere, etxebizitzaren arloko azken lege aldaketek patroï komuna erakusten dute Nafarroan eta EAEn: neurri gehienek klase ertainari mesede egitea dute helburu, hau da, arau aldaketa horiek bultzatzen dituzten alderdien hauteskunde oinarririk handienari. Bien bitartean, sektore proletarizatuenak —horien artean biztanleria migratuak pisu handia izanik— bigarren mailan geratzen dira, edo zuzenean ukatu egiten zaizkie etxebizitza kalitatezko baldintzetan eskuratzeko aukerak. Nahikoa da neurri berri horietako batzuen letra txikia lupaz begiratzea patroï hori ikusteko.

Legeen zioan bertan iradokitzen da etxebizitza-politika publikoak gehiegi zentratu direla biztanleriaren sektore pobretuenetan, eta, beraz, politika horiek modu nabarmenagoan bideratu beharko liratekeela klase ertainetara. Hori mantra arrazista honen bertsio edulkoratua izango litzateke. “kanpokoek eramaten dituzte babes ofizialeko etxeak”. Horren adibide on bat da Eusko Legebiltzak 2025. urtearen amaieran onartutako Etxebizitza, Lurzorru eta Hirigintza arloko Premiazko Neurriei buruzko Legea. Zuzenketen fasean, Eudeleko presidente Esther Apraizek (EAJ), legearen bultzatzaile izanik, etxebizitza babestuen sustapena handitzeko beharra azpimarratu zuen, “behar dutenei begira, baina baita euskal klase ertainei begira ere”, eta nabarmendu zuen ezin dela pentsatu “pertsona zaurgarrien premietan eta errealtatean soilik, eta gizartearen gehiengoa —hots, klase ertainak— alde batera utzi”.

Horrelako diskurtsoetatik jaiotzen da *etxebizitza eskuragarria* izeneko formula, gaur egun alderdi politiko guztien ahotan dabilena. Erakundeen ahaleginen zati handi bat alokairuko etxebizitza babestuen modalitatera bideratzen da, helburu izanik kaudimen handiagoko biztanleriaren sektoreei estaldura ematea. Horren erakusgarri da, EAEn, era horretako etxebizitzak eskuratzeko baldintzetako bat urtean 21.000 eta 39.000 euro arteko diru sarrerak izatea. Nafarroaren kasuan, diru sarrera horiek 28.000 eta 50.400 euro artekoak izan behar dute, gutxi gorabehera.





Etxebizitza babestua eskuratzeko orduan errol-datuta egoteko betekizunak norabide berdina markatzen du. EAEn, Etxebizitzaren arloko erregelamendu-xedapenak presaz aldatzeko dekretuak honako irizpide hau gehitu du: Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriren batean hiru urtez errol-datuta egotea alokairuko babes ofizialeko etxebizitza bat esleitzeko prozeduran parte hartu ahal izateko. Nafarroan, bestalde, 20/2022 Foru Legeak, Babestutako etxebizitza ordainerrazen parke bat Nafarroako Foru Komunitatean sustatzekoak, berriro sartu zuen erroldatzeagatiko puntuazioa babes ofizialeko etxebizitzak eskuratzeko prozeduretan, hain zuzen ere 2016an irizpide hori ezabatu ondoren. 2016ko erabaki hori justifikatzeko, honakoa argudiatu zu-

## ***Kolpe bakar batez, sinesgarritasuna ematen zaie gizarte prestazioei eta etxebizitza eskuratzeari buruzko zenbait diskurtsori, izan proletarioen aurkakoak edo zuzenean arrazistak, eta, aldi berean, are oztopo gehiago jartzen zaizkie populazio proletarizatuenaren bizitzari, neurri handi batean atzeritar jatorrikoak direnei***

ten: “orain arte etxebizitza babestuen esleipenean gertatu den egoera bidegabe eta diskriminatzaileekin amaitzea; alegia, NFKko udalerriren batean errolatuta egondako urteen arabera puntua-zioarekin. Etxebizitza izateko eskubidea eskubide konstituzionala da, eta bermatu egin behar da kontuan izan gabe leku jakin batean bizitzen emandako urte kopurua; hala, Nafarroan errolatutako pertsona guztiak berdintasunez tratatu behar direla uste da”. Puntuazio hori 2022an berriro ezarri zenean, ez zen horri buruzko aipamenik egin legearen zioen azalpenean, agian jarrera aldaketa horren arrazoiak esplizituki onartzeak talka egingo lukeelako erakundeek saldu nahi duten kontakizun integratzailearekin.

Foru komunitatetik atera gabe, duela gutxi 9/2025 Foru Legeak, Nafarroan etxebizitza ordainnerraz izateko eskubideari buruzkoak, zozketa sistema ezarri du alokairuko eta alokairu eskuragarriko babes ofizialeko etxebizitzaren esleipenetan, aurreko puntuazio sistema ordezkatzeko, eta, beraz, “etxebizitza-premia egiaztatua” izatea ez da kontuan hartzen etxebizitza babestuak esleitzerakoan. Aldi berean, eta erreserba bereziak alde batera utzita —familia ugariarentzat, desgaitasunen bat duten pertsonentzat, genero-indarkeriaren biktimentzat eta abarrentzat—, %40ko erresebak ezartzen dira “sustapena eraikiko den udalerrian gutxienez bi urteko antzinatasunez eta etenik gabe benetako bizilekua duten” errolatuentzat. Aldaketa horiek gorago deskribatutako patroian koka daitezke: sektore kaudimendunen sarbidea lehenestea babes publikoko araubideari lotutako etxebizitzetan.

Azkenik, ez dira alde batera utzi behar biztanleriaren sektore proletarizatuenen eragiten dieten

murrizketa zuzenak. Lehen aipatu ditugu errolda eskuratzeko gero eta oztopo handiagoak, baina murrizketa horien beste adibide argi bat diru sarrerak bermatzeko errentaren (DSBE) erreforma da, zeina lehenago ere aipatu dugun EAEko premiazko neurriari buruzko legearen bidez sartu baita indarrean. Lege horrek ezartzen duenez, DSBEa kobratu ahal izateko, bizi garen etxebizitzaren edo bizitokiaren “legezko titulu balioduna” egiaztatu beharko da. Hau da, ez dute prestazio hori jasotzeko aukerarik izango kontraturik gabe, lege kanpoko azpieren-tamenduetan, okupazioan edo antzeko egoeretan bizi diren pertsonak. Kolpe bakar batez, sinesgarritasuna ematen zaie gizarte prestazioei eta etxebizitza eskuratzeari buruzko zenbait diskurtsori, izan proletarioen aurkakoak edo zuzenean arrazistak, eta, aldi berean, are oztopo gehiago jartzen zaizkie populazio proletarizatuenaren bizitzari, neurri handi batean atzeritar jatorrikoak direnei; horrek haien bazterketa eta estigmatizazioa areagotzen du, bai eta diskurtso arrazistak babestu ere.

### **ONDORIO GISA**

Puntu honetara iritsita, pentsa liteke arazo bakarra dela higiezinaren agentzietako eta udal bulegoetako sentsibilitate falta edo prestakuntza eskasa. Irakurketa moralizatzaile hori, ordea, lausoa da. Hego Euskal Herrian, higiezinaren arloko arrazakeria ez da sistemaren akats puntuala, haren sektore nagusietako bat baino. Alokairua garestitzearen, espekulazioaren eta etxebizitza finantziarioaren testuinguruan, jabeek —errentatzaile txikitik hasi eta edukitzaile handi zein inbertsio funtsetaraino— arraza eta jatorria erabiltzen dituzte irizpide informal gisa, bai arriskua kudeatzeko, bai bazterketa



## ***Hego Euskal Herrian higiezinaren arloko arrazakeria, etxebizitzaren eremuan, menderatze logika zabalagoaren adierazpena da: jabetza pribatua, klase hierarkiak eta arrazializazio-gailuak konbinatzen ditu, pertsona bakoitza non eta zein baldintzatan bizi daitekeen erabakitzeko***

legitimatzeko, baita beren mozkin tasa defendatzeko ere. Estatu autonomikoa, subiranotasun muga argiekin eta Espainiako eta Europako araubide juridikoan txertatuta, desoreka horiek partzialki zuzentzearen eta Atzerriarrei buruzko Legearen, mugak kontrolatzeko politiken eta iragazki instituzionalen bidez desoreka horiek erreproduzitzearen artean mugitzen da.

Horren guztiaren aurrean, EAEn eta NFKn higiezinaren arloko arrazakeriaz hitz egitea ez da zuzentasun politiko kontua, analisi materialista baten emaitza baizik. Datuen arabera, atzerriar jatorriko pertsonen gehiegizko errepresentazio bortitza dago erabateko etxebizitza gabezia, erroldatzeari eta etxebizitzari lotutako eskubideen urraketen-gatik salaketak gero eta gehiago dira, eta gizarte pertzepzio hedatua dago dioena atzerriar jatorria, pobreziarekin batera, aterpea eskuratzeko diskriminazioa eragiten duten faktoreetako bat dela.

Hego Euskal Herrian higiezinaren arloko arrazakeria, etxebizitzaren eremuan, menderatze logika zabalagoaren adierazpena da: jabetza pribatua, klase hierarkiak eta arrazializazio-gailuak konbinatzen ditu, pertsona bakoitza non eta zein baldintzatan bizi daitekeen erabakitzeko. Ez da nahikoa iragarki diskriminatzailerak salatzea edo partikularrei eta higiezinaren agentziei sentsibiltate handiagoa eskatzea. Arazoari benetan aurre egin nahi bazaio, zalantzan jarri beharko dira etxebizitza merkantzia bihurtzen duen logika, biztanleria eskubide osoko subjektuetan eta soberan daudenetan bereizten duen geruza juridikoa, eta klase arrazializatua baztertzeko ekintza jabeen erabaki arrazionalizat aurkezten duen ideologia. ●





# Gazte langileen artean faxismoari aurre egiteko hausnarketak

---

Testua — **Joanex Artola**

Irudia — **Zoe Martikorena**



**M**undua polarizatzen ari da. Gerrek, genozidioek, zigor ekonomikoek eta abarrek irekitzen dituzte egunkarietako azalak. Krisia hemen daukagu, eta gertatzeko etorri da. Inpotentzia dario Mendebaldeko oligarkiari, ez baita ekonomia kapitalista zuzentzeko gai, ezta mundua kontrolpean mantentzeko ere, eta esku artetik ihes egiten dion oro kontrolatzen ahalegintzen da. Bistan denez, saiakera hori ez doa norabide emantzipatzailean, ezpada kontrakoan. Eta kontrako norabidea, faxismoa da. Sistema kapitalistan egon daiteken agerpen bortitzena ordezkatzan du faxismoak, jakina da.

Diskurtso horiek elikatzeko testuingurua ez da hutsetik sortzen. Garaia muturreko egoerara heldu ahala, muturreraino darama baita ere diskurtsoa: erreakzioa erradikalizatzen da, eta faxismoak, oharkabean baina etengabe, lekua hartzen du espazio publikoan. Ez da kasualitatea gero eta normalizatuagoak egotea etorkinen aurkako iruzkinak, matxismoaren auzia zalantzan jartzen duten planteamenduak, edo pobrezia ez dela egiturazko arazo bat baizik eta norberaren “inbertsio falta” omen den ustea. Horiek guztiak badira dagoeneko antolatuta dagoen bloke faxista bati arnasa, diskurtsoa eta legitimazioa ematen dizkieten elementuak.

Baina azaltzen gabiltzana ezin da ulertu elementu horiek elkarreragin dinamiko batean jarri gabe: gazteen bizi-baldintzen okertzea, instituzioen krisia, desilusio politiko orokortua eta mezu erreakzionarioen sinpletasuna. Horiek batzean, hain zuzen ere, koktel egokia sortzen baita erreakzioa errotzeko.

Mendebaldeko oligarkiaren programa politikoa programa faxistaren aldeko apustua da. Bestela esanda, endebaldeko oligarkia bultzatzen ari den politika nagusia faxismoaren aldekoa da: ekonomikoki, inperialismo basatienak ordezkaturak; eta, politikoki, estatuaren biraketa autoritarioak. Funtsean, programa faxistaren aldeko hautua bloke inperialista hegemonikoaren kolapsoaren ondorio da.

Alde batetik, ezinean datorren sistema kapitalistaren krisi historikoan kokatu behar dugu marko orokorra. Hamarkadak dira kapitala ezinean dabilela bere balorizazio prozesuari dagokionez. Esan nahi baita, ez du akumulazio ziklo berri eta fidagarri bat irekitzea lortzen. Hori dela-eta, klase ertaina proletarizatzen ari da; hura osatzen duten mailak pobretzen ari dira, eta horrek beren bizi maila integrala okertzea dakar. Izan ere, kapitalak

ez du aski baliabide ekonomiko gizarte burgesa gaur egun ezagutzen dugun moduan mantentzeko: osasungintza, garraioa eta prestazio publikoak dira horren adibide. Azken finean, ongizate-estatuaren desegiteaz ari gara. Errentagarria ez den instituzio oro apurka-apurka desegiten edo gutxienez, prekarizatzen ari da oligarkia. Eta testuinguru horretan, sozialdemokrazia, haustura mugimendu izan beharrean, oligarkiaren politikak aplikatu eta onartzen ari da. Egitate horrek urte luzez sozialdemokraziak gazteengan izan duen atxikimendua gutxitu du. Hala, gazte askoren despolitizazioa eta politika profesionalarekiko urruntzea eragin du. Azken urteetan gazteen despolitizazio prozesu nabarmena gertatu den zantzua hauteskundeetan ageri da, non gazte langileon parte-hartze datuak oso baxuak baitira.

Faxismoak, gazteria langileak bizi duen ziurgabetasun eta despolitizazio egoera nolabait probestu nahi duenez, proposamen itxuraz erradikalak egiten baditu ere, ez du gaur egungo baldintza sozial eta ideologikoetan proposamenok modu kolektibo eta kontzientean artikulatzeko tresnarik. Horixe da despolitizazioaren funtzio historikoa: klase subjektua desegituratzea eta norbanakoa isolatzea, Kapitalaren krisi estrukturalak sortzen dituen arazoei izaera pertsonal eta psikologikoa emanez. Ez da despolitizazio pasiboa; aitzitik, despolitizazio aktibo bat da, klase antagonismoa ezkatatzeko helburua duena. Marxek berak zioen moduan: klase dominatzaileak ez du soilik produkzioaren kontrola, kontzientziaren produkzioaren kontrola ere badu.

***Mendebaldeko oligarkiaren programa politikoa programa faxistaren aldeko apustua da. Bestela esanda, Mendebaldeko oligarkia bultzatzen ari den politika nagusia faxismoaren aldekoa da: ekonomikoki, inperialismo basatienak ordezkatuta; eta, politikoki, estatuaren biraketa autoritarioak. Funtsean, programa faxistaren aldeko hautua bloke inperialista hegemonikoaren kolapsoaren ondorio da***



## ***Elite politiko eta ekonomikoek dinamizatzen duten errealitatearen interpretazio ofizialak —segurtasunaren diskurtsoa, lehiakortasunaren mito meritokratikoa, feminismoaren kriminalizazioa edo migrazioaren demonizazioa— gazteria langilearen eguneroko noraezari erantzun faltsu eta toxiko bat ematen dio***

Era berean, elite politiko eta ekonomikoek dinamizatzen duten errealitatearen interpretazio ofizialak —segurtasunaren diskurtsoa, lehiakortasunaren mito meritokratikoa, feminismoaren kriminalizazioa edo migrazioaren demonizazioa— gazteria langilearen eguneroko noraezari erantzun faltsu eta toxiko bat ematen dio. Horrela funtzionatzen du hegemonia ultraeskuindarrak: pertsonen arazo sistemikoak arazo indibidualizat hartzeko baldintzak jartzen ditu, eta horrela, erreakzio autoritarioa aukera “natural” gisa agertzen da.

Beste alde batetik, krisi kapitalistari aurre egiteko ezkerreko alderdi burgesen proposamenek porrot egin dute. Ongizate-estatua mantentzeko ahalginak huts egin du eta ezkerreko gobernuetatik martxan jarritako politika askok eta askok langilearen geruza zabalen pobretzea eragin dute, erosahalmena nabarmenki galdu baitugu langileok.

Testuinguru horretan kokatuko dugu egingo dugun hausnarketa politikoa. Garrantzitsua da krisiaren teoriatik eta Mendebaldeko bloke kapitalistaren eta inperialistaren desegitearen markotik hitz egitea, bai eta erreakzio edo kontratendentziak bertan kokatzea. Izan ere, badago irakurketa desegoki bat zeinak politikoen edo eliteen izaera ankerra jartzen duten desastre sozialen erdigunean —nahiz eta oligarkek izaera ankerra duten, psikopata kutsu handiarekin batera—. Irakurketa horrek ezkututzen duena, batetik, eta bilatu nahi duena, bestetik, zera da: politikoen aldaketa instituzionalaren bidez errealitate sozial kapitalista alda daitekeela pentsaraztea. Alegia, Trump jarri beharrean Kamala Harris jarriko balute, arazoa gaindituko litzatekeela. Aspaldian entzuten den kontua izan arren, oraindik gaurkotasuna duen irakurketa sozialdemokrata horrek ez du egungo testuingurua ulertzeko balio. Laburbilduz, faxismoaren goraka-

daz hitz egiteko krisi kapitalistaz hitz egin behar dugu gaur-gaurkoz; ezin gara politika instituzionalera mugatu.

Gazteak, eta gazte langileak batez ere, umezurtz gaude egungo abagune historikoan. Politikoki erreferentzia iraultzaile eta emantzipatzailerik gabe, eta, gainera, ezker burgesaren politikak porrot eginda. Horiek horrela, talde faxistak antolatzen hasi dira. Eta horietako batzuk modu trebean. Hain zuzen, egoera nahasia denean, eta erreferentzia politikorik ez dagoenean, baldintzak sortzen dira talde faxistak antolakuntza popular gisa aldarrikatzeko, masa antolakunde moduan. Noraez ideologiko eta politiko horretan talde faxistak VOX gisako plataforma elektoral handien babesean jarduteko gaitasuna irabazi dute, programa atzerakoi eta erreakzionarioak garatu dituzten heinean. Gazte andana hasi da ideologikoki eta organizatiboki taldeotan lanean.

Ildo horretatik, bi dira faxismoak gazteak erakartzeko dituen baliabide ideologiko nagusiak. Batetik, erro soziala eta ekonomiko duen arazo oro aferra indibidual gisa aurkezten dute. Horrela uler daiteke filosofia estoikoaren gorazarrea, besteak beste. “Zure bizitza miserablea bada, zure errua da” lemarekin kapitalismoak sortzen dituen hamaika miseria ezkututzen dituzte faxistek. “Lanik ez baduzu, nahikoa saiatu ez zarelako da”. Horrelakoek beti jartzen dute langileria jo puntuan, faxismoak pobreena, gizarte-dinamikatik kanporatua dena, baitu beti jo puntuan. Eta ez da harritzekoa faxista berriek mantra liberal handienak erosi izana, azken finean marko ideologiko bera partekatzen dute-eta, kontrakoa erakutsi nahi badute ere.





***Horrela funtzionatzen du hegemonia  
ultraeskuindarrak: pertsonen arazo  
sistemikoak arazo indibidualtzat hartzeko  
baldintzak jartzen ditu, eta horrela, erreakzio  
autoritarioa aukera “natural” gisa agertzen da***

## ***Politika egiteko filosofia irrazionalista darabilte faxistek une oro. (...) Eztabaida politikoen arrazionaltasuna sistematikoki ukatzeari helburu, "ad hominem" falaziak, sentsazionalismoa eta gezurrak erabiliz***

Era berean, faxismoa baztertzaileria da, predikatzen duen nazionalismoa erabat supremazista baita. Nazioaren supremazismoa aldarrikatzen du, nazioaren kide askoren kontra jota, langileria migrantearen eta antolakunde iraultzaileen kontra, batik bat. Alegia, nazioa barneko kideen kontrako etsaitasun bilatzen du. Hala, supremazismoaren aldeko jarrera mantentzen du: norberaren kultura eta zibilizazio ereduak besteekin gainetik kokatu, eta horren parte ez direnen aurka bortxaz jokatzeko du. Horren adibide da etorkinen, komunisten, LGTB kolektiboko kideen eta abarren kontrako kale ehizak.

Bestetik, irrazionalismoaren doktrina dago erdigunean. Politika egiteko filosofia irrazionalista darabilte une oro; gazteak talde faxistetara gerturatzeko erabiltzen duten irrazionalismo horrek logika, argudio eta jokabideei egiten die erreferentzia, baita oinarrian dagoen premisa filosofikoari ere. Horrek guztiak eztabaida politikoen arrazionaltasuna sistematikoki ukatzeari helburu, *ad hominem* falaziak, sentsazionalismoa eta gezurrak erabiliz. Halaber, oligarkiarenak diren plataforma digitalak erabiltzen dituzte irrazionalismoa sustatzeko, esate baterako X edo Twitter. Elon Musken jabetza denetik, ez dago eztabaida arrazionalerako tarterik. Eta sare guztia buloz eta gorroto mezuez bete da.

Irrazionalismoari dagokionez, zentzu nagusi batean uler daiteke: eztabaida politikoa faxistek hartzen duten jarrera, gezurretan, idealismoan eta kean baino ez dena oinarritzen. Horregatik, ez diote errealtateari erreparatzen eta erabat populistak dira, zentzu txarrean. Adibidez, etorkinak seinalatzen dituztenean segurtasun arazoaren aitzakiapean, edota mugak ixteko eskatzen dutenean, bideraezinak diren proposamenak izaki, ez dute bilatzen arazo konkretu bati erantzuna ematea, baizik

eta sentsazionalismoa eta gorrotoa zabaltzea. Finen, ez dute esaten dutenaren ardurarik hartzen, ez baitituzte ondorioak onartzeko ez gaitasunik, ezta konpromisorik ere. Eta hor egundoko diferentzia dago haien eta gure artean: guk egiarekiko konpromisoa dugun heinean ez dugu buloa edo gezurra erabiliko gure tesi politikoak zabaltzeko; faxistek, bai. Ez baitute ardurarik, ez eta ondoriorik ere pairatzen.

Orain arte forma fenomeniko gisan mintzatu gara faxismoaz; baina, garrantzitsua da —garrantzitsuagoa agian— faxismoari aurre egiteko estrategiaz hitz egitea. Ildo horretan, bi antifaxismo eredu garatu daitezkeela ikusten dugu: antifaxismo instituzionala eta antifaxismo militantea edo kalekoa.

Alde batetik, antifaxismo instituzionalak, bere burua demokraziaren azken babes-horma gisa aurkezten duen arren, karikatura arin eta despolitizatu bihurtu du faxismoaren aurkako borroka, sistemaren egonkortasuna zaintzeko erabiltzen den moralismo burokratiko hutsa. Estatu burgesak —bere funts autoritarioa ezkutatu nahian— faxismoa arazo estetiko, kultural edo koiuntural gisa definitzen du, eta ez du sekula aitortzen haren benetako erro materiala: Kapitalaren krisi historikoa eta oligarkiaren programa politikoaren zati organikoa da faxismoa.

## ***Antifaxismo instituzionalak, bere burua demokraziaren azken babes-horma gisa aurkezten duen arren, karikatura arin eta despolitizatu bihurtu du faxismoaren aurkako borroka, sistemaren egonkortasuna zaintzeko erabiltzen den moralismo burokratiko hutsa***

Horregatik, antifaxismo instituzionalak bi funtzio betetzen ditu: alde batetik, gazteria eta langile klasea desmobilizatzea, faxismoaren aurkako borroka “adituen” esparru tekniko eta legal batera mugatuz; eta bestetik, borroka erreal eta erradikal oro kriminalizatzea, faxismoa eta antifaxismo militantea parekatuz, biak “bi mutur arriskutsu” gisa aurkeztuz, eta horrela, borroka antikapitalista neutralizatzen du. Bere diskurtsoa faltsua da: faxismoa “gorrotoari lotutako afera” edo “tolerantzia faltaren ondorioa” balitz bezala tratatzen du, eta ez klase-borrokaaren produktu historiko eta Kapitalaren erreakzio politiko zuzen gisa. Horrela, antifaxismo instituzionalak, irabazi duen posizio burokratikoari eusteko, gazteriar probokazioetan ez erortzeko eta eredugarria izateko eskatzen dio, mobilizazio autonomoa eta antolakuntza komunistaren aukerak zapuzteko, batik bat. Faxismoaren aurka oldartzen dela dioten bitartean, berez, kapitalaren ordena politiko eta soziala zuritzen du: autoritarismoa “segurtasun demokratiko” bihurtzen du, polizia-estatuaren hedapena “defentsa antifaxista”, eta errepresioa “gizarte babesteko neurri”.

Hori dela eta, bizi garen testuinguru historikoan behar-beharrezkoa da antifaxismo militantea gazte langileen artean joera politiko-kultural hegemoniko bilakatzea. Horretarako hainbat gaitasun artikulatu behar ditugu.

Hegemonia kulturalaren ikuspegitik, antifaxismoa nagusi bihurtzeko, beharrezkoa da gazteen artean antolakunde eta diskurtso politiko independente bat, non faxismoa ez den aurkezten “muturreko eskuina” edo “arrisku demokratiko” gisa soilik, baizik eta kapitalaren proiektu politiko koordinatu gisa: kontrol sozialera, proletariazio prozesuan sakontzera eta langileria-antolakuntza lurperatzera bideratutako mekanismo historiko gisa. Bide horretan, gazte langileen an-





**Antifaxismoa ezin  
da soilik erantzun  
defentsibo bat izan;  
gazteen artean proiektu  
politiko ofentsibo  
eta emantzipatzaile  
bihurtu behar da**

**Estatu burgesak  
—bere funts  
autoritarioa ezkutatu  
nahian— faxismoa  
arazo estetiko, kultural  
edo koiuntural gisa  
definitzen du, eta ez  
du sekula aitortzen  
haren benetako erro  
materiala: Kapitalaren  
krisi historikoa eta  
oligarkiaren programa  
politikoaren zati  
organikoa da faxismoa**

tolakunde komunistak, eta gazte langileok oro har, indar erabakigarria gara belaunaldi berriak faxismoaren kontrakotasunean hezteko. Balio eta jarraera antifaxista kontsekuentea izateko, hain zuzen ere. Sozialdemokraziak gazteria botoak irabazteko eta hartzaile pasibo izateko nahi duen bitartean, antolakunde komunistetako kideok lehen lerroan egon behar dugu. Eta espazio guztietan borrokatu behar dugu faxismoa: kaleetan, sareetan, eskoletan, unibertsitateetan...

Horregatik, antifaxismoa ezin da soilik erantzun defentsibo bat izan; gazteen artean proiektu politiko ofentsibo eta emantzipatzaile bihurtu behar da. Hari horri tiraka, antifaxismo militantea kapitalismoaren aurkako borrokan integratzeko beharra seinalatzea dagokigu, faxismoari ideologikoki nahiz kulturalki ere aurre egin behar baitzaio. Eta horrek berekin dakar ezinbestean faxismoa sostengatu eta finantzatzen duen gizarte eredua deuseztatzea.

Gazte langileok ez dugu soilik faxismoaren aurka altxatu behar; ordena sozial kapitalistari aurre egiteko antolatu behar gara. Antifaxismoak gazteak subjektu politiko gisa berreraikitze balio behar du, antolakuntza komunistaren egitura berritze-ko, auzo- eta lantoki-borrokak aktibatze-ko, eta batez ere, gazteen artean antifaxismoa eta komunismoa tendentzia politiko-kultural hegemoniko bilakatzeko. ●

# Begirada bat gaur egungo arrazismoari

---

Testua — **Adam Laamirni**



**A**rrazakeriaren gorakada betea bizi dugu gure gizarteetan. Arrazakeria hainbat mailatan azaleratzen ari da, baina ez zaio esklusiboki bere eroale nagusiari, hots, eskuin muturrari, lotzen. Era berean, arrazakeriak modalitate ugari ditu eta hainbat modutara argudiatzen dira postura arrazistak. Testu honetan, arrazismoren inguruko zenbait gakori begiratuko diegu, Europako eta Estatuko alderdien posizioak analizatuko ditugu, eta bulo arrazista nagusietako batzuk aztertu eta kontrastatuko ditugu.

## **ARRAZAKERIAREN ETA ARRAZA-ZAPALKUNTZAREN INGURUKO PUNTU BATZUK**

**A**rrazakeria, fenomeno moderno gisa, kapitalismoaren hastapenekin lotu beharra dago ezinbestean; zehazki, kolonialismoarekin eta ondorengo fase inperialistarekin.. Kapitalaren abangoardia ziren Europako herrialdeek munduko gainontzeko lurraldeak azpiratu zituzten, eta bertako biztanleei menpeko posizioa bat inposatu. Horrela, arraza-zapalkuntza kapitalismoko dominazio forma gisa gorpuzten joan da.

Fase kolonialista amaitu eta periferien gaineko kontrol politiko zuzena galdu arren, inperialismoaren garaiko potentziek periferien menpekotasuna erreproduzitzen jarraitu dute. Hau da, potentzia inperialistek, nagusitasun industrial eta finantzarioa medio, Hegoalde globala haien mesedetara moldatu dute. Bestek beste, lehengaien ustiapenera, laborantzara edota kualifikazio gutxiko industria sinpleetara bideratzen dituzte herrialdeok, zorraren bidez itotzen dituzten bitartean. Horrela, potentzia kapitalistak aberastasuna metatzen joan dira periferien kontura.

Aipatutakoaren haritik, arraza-zapalkuntzak hiru aspektu orokor barnebiltzen dituela esango nuke. Batetik, arrazaren arabera lan banaketa: horren bidez, periferietako langileak gizarteko estratu bajuenetan mantentzen diren, lan esplotazio-ko erregimen gordinenak jasatera eta biziraupen hutsera kondenatuta. Haien patua pobrezia kronikoa, esklabutza eta heriotza izan dira.

Bestetik, lan banaketa hori bermatzeko dominazio forma partikularrak ditugu, finean langile horien eskubideak partzialki edo osoki ezabatzean oinarritzen direnak. Apartheid sistema edo segregazio legeak, kontrol eta errepresio mekanismo espezifikoak, erregimen diktatorialak, lintxamenduak etab. dira forma partikular horien adibide. Guztiak dira arrazaren arabera lan banaketa eta berarekin dakarren esplotazio gordina betikotzeko tresna politikoak.

Azkenik, ideologia arrazista dugu, arraza-zapalkuntzaren adierazpen ideologikoa, alegia. Beste modu batera esanda, arraza-zapalkuntza justifikatu, normalizatu eta sistematizatzen duen marko ideologikoa. Periferietako langileen zapalkuntza naturalizatzeko funtzioa betetzen du.

Horretarako, ideologia arrazisten adierazpen biologizistak garatu ziren, langileen zenbait ezaugarri biologiko aurkeztuz menpekotasuna justifikatzeko arrazoitzat. Ezaugarri fisikoak bihurtu di-

***Lehengaien ustiapenera,  
laborantzara  
edota kualifikazio  
gutxiko industria  
sinpleetara bideratzen  
dituzte periferiako  
herrialdeak, zorraren  
bidez itotzen dituzten  
bitartean. Horrela,  
potentzia kapitalistak  
aberastasuna  
metatzen joan dira  
periferien kontura***

ra bereizketa arraziala gauzatzeko mekanismorik efektiboenetakoak: besteak beste, azalaren kolorea ezarri da arraza-zapalkuntzarako markagailu. Hala ere, badira ezaugarri fisiko edo biologikoen arabera justifikazioa zailtzen duten testuinguruak; horrela, argudio biologizistak erabiltzetik interpretazio etnizistei pisu gehiago ematera pasa dira, ezberdintasun kultural edo erlijiosoak jarritz erdigunean.

### **Egungo egoerara gerturapena**

Arraza-zapalkuntza eta ideologia arrazistak burgesiaren boterea mantentzeko tresna dira, eta, ondorioz, bereziki langile arrazializatuak zuzendu arren, langile guztion aurkako eraso bat da. Langileon arteko fragmentazioa eragiten du, eta esplotazio ekonomikoa gordindu; hala, burgesiaren posizio dominantea indartzen du, langileona ahultzen duen bitartean. Arrazakeria, beraz, egiturazko zapalkuntza gisa, burgesiaren dominazio sistemaren atal bat da, bereziki oligarkia inperialistarena.



***Migrazio politikak  
arraza-zapalkuntzaren  
adierazle gisa ulertu  
beharko genituzke,  
arrazaren arabera  
lan banaketan eta  
eskubideen suntsipenean  
oinarritzen baitira***

Europaren kasuan, bertako oligarkia finantzarioaren akumulazio dinamikak dira, momentuko beharren arabera, arraza-zapalkuntzaren konfigurazio konkretua zehazten dutenak. Langile arrazializatuak zuzendutako neurriak aktualizatuz doaz, kanpora zein barrura begira. Kanpora begira, neurri horiek periferiako esplotazioan eta dominazioan zentratzen dira. Barrura begira, berriz, pertsona migratuetan eta langile arrazializatu autoktonoetan zentratzen dira, hau da, zentro inperialistako lan prozesuetan txertatuko diren langileetan.

Artikulu honetan, migrazioen alderditik eutsiko diot gaiari, alderdi horren bueltan gertatu baita ideologia arrazisten gorakada nabarmena. Izan ere, migrazioaren inguruko politikak eta diskurtsoak ez dira modu abstraktuan zuzentzen kanpotik datorren pertsona ororen aurka. Kontrara, periferietako langile arrazializatuak zuzenduak daude bereziki; ikusi besterik ez dago Ukrainako errefuxiatuekin edo inbertsore handiekin ez dela inongo polemikarik sortzen. Hala, migrazio politikak arraza-zapalkuntzaren adierazle gisa ulertu beharko genituzke, arrazaren arabera lan banaketan eta eskubideen suntsipenean oinarritzen baitira.

Azkenik, kontuan izan behar dugu migrazioen bueltako ideologia arrazistek interbentzio inperialistarako edo barneko langile arrazializatuaren aurka joateko baldintzak ere sortzen dituztela.

## ***Migrante irregularrak azkarrago kanporatzeko neurriak hartu dituzte hainbat herrialdek, bereziki asiloaren figura erasotuz. Kontuan izan behar dugu migrante irregularren %20-40k hartzen duela asiloaren bidea***

### **EUROPAKO TESTUINGURUA**

Estatuko eta Euskal Herriko egoeran lurreratu aurretik, Europak auzi honetan duen proiektzioa identifikatu beharra dago.

Europak 1950eko hamarkadatik aurrera modu egonkorrean integratu ditu periferietako langileak haren ekonomian, zati esanguratsu bihurtzera iritsi arte, eta are garrantzitsuagoak bihurtu dira, gainera, Europako joera demografiko negatiboengatik. Hala ere, faxistek diotenaren kontrara, ez dago muga irekirik, ezta eredu migratorio permisiborik ere. 1990eko hamarkadaz geroztik, migrazio fluxuak mugatu eta kontrolatzeko neurriak hartzen joan dira Europako estatuak. Jarraian, gaur egungo testuinguruaren deskripzio orokorra egiten saiatuko naiz, azaletik bada ere.

Europako ekonomiak ez dira errekuiperatu 2008ko krisiaren ondorioetatik, eta zorpetzeak, produktibitate galerak edo krisi politikoez jarraitu egiten dute. Egoera horri azken labankada eman dio potentzia inperialisten artean Europak galdu duen posizioak, besteak beste Errusiarekin edo AEBekin izandako tirabirek hauspotuta. Egia da Europako ekonomiak migranteak behar dituela, baina kontua da ekonomia honen etorkizuna bera nahiko ezegonkorra dela. Bestetik, mundu mailako krisiak eta pobrezia migrazio fluxu handiak eragingo dituztela ondo funtsatutako ustea da. Siriako gerraren ostean gorakada handia egon zen pertsona migratuen kopuruan, eta horrek errealitate gordin baten aurka jarri zituen Europako herrialdeak. Inperialismoak eragindako guden eta miserien ondorioak eskuetan lehertu zitzaizkien herrialdeoi, milioi erdi migranteren formapean.

Ondorioz, Europaren perspektiba testuinguru honetara egokitzen ari da, zentroko ekonomietan

migranteen gaineko esplotazioa mantendu (eta gordindu) behar den arren, haiek kontrolatzeko mekanismoak ere gogortu behar dira. Egungo egoera honela laburbildu daiteke: migranteak bai, kolpatutako ekonomia baterako; baina migrante potentzial gehiegi, kolpatutako ekonomia baterako.

### **Asilo eta migrazio paktu berria**

Europako migrazio politikek migrazio fluxuen kontrolean eta gestioan jarri dute enfasia. Asilo paktu berria da horren adibide nagusia, eta bertan aurki daiteke Europako hurrengo urteetarako proiektzioa. Hiru aspektu aipatuko ditut:

### **Asilo politiken aldaketa eta migranteen kanporatze azkarra**

Migrante irregularrak azkarrago kanporatzeko neurriak hartu dituzte, bereziki asiloaren figura erasotuz. Kontuan izan behar dugu migrante irregularren %20-40k hartzen duela asiloaren bidea (Espainian, %40-50ek). Arlo honetan egindako aldaketek, besteak beste, asilo eskubidea ukatu ahal izateko bitarteko handiagoak eskaintzen dituzte. Adibide gisa, hirugarren herrialde seguruen zerrenda zabaldu dute (tartean, Kolonbia edo Maroko sartu dituzte), era horretan bertatik pasatzen diren migrante guztiei asilo eskaera automatikoki ukatzeko eskumena jasoz. Neurri horiek, gainera, estatuen bortizkeria jada errealitate bat den testuinguruan iritsi dira; ondorioz, era horretako jokabide bortitzek lege estaldura handiagoa lortu dute (adibidez, “push-back” edo “devolucion en caliente” deituriko kasuetan).

### **Kontrol bitartekoak indartzea**

Kontrol teknologia berrietan eta mugen militarizazioan sakontzen du. Batetik, Frontex eta antzeko segurtasunerako antolakunde militarrek indartzen dira. Bestetik, industria teknologiko militarrek etekin izugarriak ateratzen ditu kontrol bitartekoak indartzea helburu duten planetatik, migrazio politiken sustatzaile eta onuradunak direlarik.

### **Kanpora ateratzeko politikak**

Mugen militarizazioaren adarretako bat dira migratzaileen kontrola kanpora ateratzeko politikak, azken finean migrazio bideen gaineko kontrola areagotzeko saiakera bat baitira. Adibidez, Europako eremutik kanpo migranteen kartzela eta kontrol zentroak eraikitzeak apustuak aurki ditzakegu. Bestalde, azpimarratu beharra dago era horretako zentroetan migranteen aurkako eraso jarraituak eman ohi direla; besteak beste, torturak, bortxaketak edo erdiesklabutza.

### **Arrazakeriaren egungo koordenatuak: islamofobia**

Migrazio politikek, beraz, arrazismoa Europako egungo beharretara egokitzen dute. Horri dagokionez, aipatu beharra dago migrazio politiken xede diren langileak Ekialdetik edo Afrikatik datozela bereziki. Joera hori argi ikusten da teknologia militarra eta biolentzia zein eremuetan hedatu den erreparatzen badugu. Hala, migrazio politikekin erreproduzitzen den arrazakeria bereziki beltzen, ekialdearren eta arabiarren zein magrehtarren aurkakoa da; hala, arrazakeria islamofobiaren forma hartzen joan da. Horrek ez du esan nahi beste sektore arrazializatuek politika hauek jasaten ez dituztenik, baina gaur-gaurkoz fokua ez dago zehazki beste sektore horien gainean jarrita.

### **ESTATUKO POSIZIO POLITIKOAK**

#### **Bloke politiko nagusia (PP eta PSOE)**

Espainiako Estatuan, arraza-zapalkuntzarako politika honen eroale diren alderdien abaniko zabala aurkitzen dugu, haietako bakoitzak klase interes jakin batzuk errepresentatzen dituelarik. Desberdintasunak egon arren, guztiek pibotatzen dute Europako agendaren inguruan, Europaren posizioa inperialista sostengu duten heinean.

Espainiako Estatuan, Trantsizioaz geroztik bi estatu-alderdik gobernatu dute txandaka; alderdi horiek, aldi berean, Europako oreka politikoaren bi bloke nagusietan txertatuta daude. Beraz, esan daiteke PP eta PSOE Estatuko burgesia eta klase ertainaren alderdi nagusiak direla, biak ala biak Europako oligarkiarekin sintonian eta hari subordinatuta.

Alderdi Popularrari dagokionez, zera azpimarratu beharra dago: bere talde europarra izan da azken 20 urteetan Europako Batzordeko presidentetza mantendu duena. Beste hitz batzuekin esateko, Alderdi Popularra Europako burgesiaren talde politiko nagusiaren parte da (Alemaniako CDU izanik buru).

Horrela, lehen aipatutako bi ardatzen bueltan dabil Alderdi Popularraren posizioa. Aurkeztu zuen proposamena postura horren adibide da: migratzaileen esplotazio ekonomikoa beharrezkoa dela aitortzen dute, eta horretarako migratzaileen eskubideak murriztu eta haien gaineko kontrola areagotu behar dela aldarrikatzen dute. Besteak beste, errotze sistemaren amaiera, ezohiko erregularizazioen ezabapena edo puntukako mailakatzeara proposatu dituzte. Errentagarritasun ekonomikoa da irizpide bakarra. Alemaniaren eta Europaren sintonia berean kokatzen dira: kontrola eskubideen gainetik.

PSOEk ere estela berberari jarraitzen dio: migratzaileen erabilera ekonomikoa, baina geroz eta muga eta baldintza gehiagorekin, gainera. Sanchezen Gobernuak eta sozialista europarrek EBko agenda babestu eta aplikatzen dute; are gehiago, Europako talde sozialistako zenbait alderdi izan dira migranteen aurkako legeetan pauso esanguratsuak egin dituztenak.

Hala ere, Estatuko politikan badira PSOEek interes partikularren arabera egindako zenbait keinu engainagarri; besteak beste, ezohiko erregularizazioa eta ezezko bozketa asilo paktuaren inguruko azken akordioan. Kasu bietan, PSOEek migratzaileen aldeko erreferentzia gisa azaldu nahi izan du bere burua, Europako biraketa erreakzionarioaren aurrean. Baina adibide horien atzean ez da posizio antiarrazista errealik aurkitzen, bestelako interesak baizik.

Erregularizazioaren auzia, estatuko polarizazio egoera baliatuta, ezkerreko errebindikazioen banderadun gisa aurkezteko antzezlan bat izan da, ezkerreko alderdi txikiak fagozitzatu eta haien bozkatzaileen babesa metatzeko. Errealki, ezohiko erregularizazioa kaxoi batean gordeta utzi dute Atzerritartasun Legearen erreforma batekin ordezkaturata, zeinak asiloaren bideari oztopoak gehitzen dizkion, gainera (Europako asiloaren paktuaren sintonia berean eta Espainia izanik asilo gehien ukatzen dituen herrialdea).

Ezeko bozketaren kasuan ere, kontua ez da alderdi sozialista paktuaren aurka egotea, kontrara, paktuaren defentsa zurruna egiten du. Auzia zera da: bazitekeen azken bozketa horretan proposatzen ziren aldaketek Espainiari konkretuki kalte eragitea. Azken batean, paktuaren aplikazioan ahalik eta kalte gutxien jasateko ahalegina besterik ez da izan kontrako bozka hori. Presio migratorio handienetarikoa duen estatuko presidentea izanik, mugimendu hori europarrekin diru partidak regateatu eta babesa jasotzeko maniobra bat besterik ez da izan.

Baina hainbeste trileroko joko eta mozorroren atzea ez dago karnabalik, baizik eta balak. Argudio humanistak erabili zituen Marlaskak ezezkoa justifikatzeko, baina bere ministerioak hilabete batzuk lehenago ireki zituen Mauritaniar migranten kontrolerako kartzelak, bai eta CIE erraldoi bat ere Algecirasen. Izan ere, hori da PSOEren politiketan ezkututzen dena; hau da, PPren joera berdina. Oligarkia europarraren programa, baina hitz politzez jantzia.

Zentroko alderdi guztiek Europa inperialistaren egungo erronkei egokitutako agenda arrazista sostengatzen dute. PP eta PSOE dira, beraz, Europako oligarkiak ezartzen duen arrazakeria estrukturalaren ordezkari nagusiak Espainian. EAJ edo Junts ere koordenada horietan aurki ditzakegu. Azken aldiko zenbait proposamen dira horren adibide: bi alderdi autonomistak migranten erabilera ekonomikorako eta kontrolerako konpetentzia zein diru partidak negoziatzen ibili dira.

### **Bloke nagusiko bazkide berria: faxismoa (VOX, Alianza Catalana etab.)**

Baina bada kontrolean enfasi handiagoa egiteko beste arrazoi bat, faxismo berriaren hazkundera eta eragina. Ukaezina da faxismoa panorama politikoa- ren zati geroz eta handiagoa hartzen joan dela.

Faxismoan proletarizatzen ari den klase ertainaren eta burgesiako zenbait kaparen desesperazioa kanalizatzen ari da. Hain zuzen ere, Europaren gainbehera inperialistaren aurrean, kapa horiek, beren pribilegio nazionalak mantendu nahian, go- tortze nazionalista eta erreakzionarioaren alde egiten dute. Horrela, faxismo berriaren funtzio nagusietakoa deriba erreakzionarioa hauspotu eta kanalizatzea da, Europako agenda autoritarioa bizkortzeko.

Hala, korrante horiek arrazismoaren bertsio erradikalena gorpuzten dute. Neurri gogorrenak bultzatu, bulo arrazistak etentabe hedatu eta kale mobilizazioa hauspotzen dituzte. Vox eta haren homologo europear eta estatalak, bakoitza bere estiloan, migrazioaren gaineko ikuspegi supremazista zabaltzen saiatzen dira, islamofobia ardatz duena bereziki.

Eskuin muturra ez da kanpotik eragiten duen lobby bat, Europako proiektzio estrategikoan guztiz txertatuta dagoen indar bat baizik. Izan ere, Europako eskuin muturreko alderdiak biltzen dituzten bi talde nagusiak (ECR eta Patriots for Europe) Europako Parlamentuko hirugarren eta laugarren indarrak dira eta are estatu batzuetako Gobernuan daude (adibidez, Polonian edo Hungarian). Meloni- ren kasuan ere argi ikusten da, *rara avis* bat baino, Europako dinamikan integratutako figura inportantea dela, are gehiago Trumpekin duen elkartasunari esker.

Hori da panorama orokorra, beraz, zirkulua ix- ten doa. PPk eta PSOEek, alderdi nagusiak diren he- nean, Europako oligarkiaren programa aplikatzen dute, zeinetan migranten erabilera ekonomikoa eta kontrola orekatzen diren, enfasia edo balantza bigarreneraren alde inklinatuz. Balantzaren inkli- nazioa faxismoak errepresentatzen du, eta hori ez da soilik estrategia edo propaganda elektoralisten ondorio. Gizartearen poliziarizazioak polizia gehia- go inkorporatzea dakarren moduan, irtenbide au- toritarioa orokortzeak faxista gehiago jartzen ditu boterean.



***PSOEren politiketan  
ezkututzen dena, PPren  
joera berdina da: oligarkia  
europarraren programa,  
baina hitz politez jantzia***

**Bloke nagusitik kanpo dauden  
bigarren mailako bazkideak (Podemos,  
Sumar, EH Bildu, ERC, etab.)**

Azkenik, ezker erreformistan koka daitezkeen alderdiak aurkituko genituzke. Haien ustez, arrazismoaren auzia nagusiki eskubide zibilen aferara eta diskurtso arrazistetara mugatzen da; horrela, asko jota, erreformak proposatu eta diskurtso arrazistak seinalatzen dituzte. Baina, arraza-zapalkuntzaren oinarrian aurkitzen den Europako posizio inperialista ez dute ezbaian jartzen, hain zuzen ere hori delako haien programa interklasista aplikatzeko marko posiblea. Ondorioz, ez dute arrazaren araberrako lan banaketa eta dominazioa gainditzeko programarik, eta arrazakeria kolatzen zaie modu batean edo bestean.

Ondorioz, geroz eta kanporago daude ixten doan aginteko bloke politikotik, haien programa erreformistak aplikatzeko markoa EBren eta estatuen posizio inperialista den heinean, geroz eta marjina gutxiago dutelako ekintzarako. Kapitalismo inklusibo baten ametsak geroz eta urriagoak dira. Horrela, bi tendentzia nagusiren aurrean aurki daitezke alderdi horiek:

Batetik, estatuen agenda autoritarioak eta klaseertaineko base sozialak erreakzioranzko joera hartzen duten heinean, ezker erreformistako alderdiak korrante orokorrera batzen dira, lekuz kanpo ez geratzeko. Horrela, sortzen ari den zentzu komun arrazistarekin bat egin eta migratzaileen aurkako Europako agendarekin sintonian jartzeko joera egon daiteke. ERCrena da joera horren adibide garbi bat, migranteen aurkako agenda justifikatzen duten zenbait eslogan bere egin dituelarik (adibidez, migrazioa intsegritatearekin lotzea).

## ***Politikarien adierazpenak, komunikabideen bonbardaketa, sare sozialetako zurrumbilo erreakzionarioa eta mugimendu faxistak izan dira migranteen aurkako neurriak justifikatzen dituzten topiko, bulo eta estereotipoak zabaltzen ibili direnak***

Bestetik, kontraesanak areagotzen doazen heinean, alderdi horien oinarri sozialaren zati bat geroz eta mesfidatiago ager daiteke erreformismoaren fartsarekiko, hala nola migranteen elkarreetak edo arreta sozialeko zenbait langile -finean, konpromiso antiarrazista kontsekuente bat duten sektoreak-. Ondorioz, bozkatzaille masa horiek mantendu edo lortzeko erradikal itxura emateko saiakerak ere egin dituzte alderdiok, arrazismoaren gaineko kezka kapitalizatu nahian. Horren adibidea Podemosen daukagu.

Azkenik, tarteko posizioak ditugu; adibidez, EH Bilduk errepresentatzen duena. Zenbait topiko arrazista erreproduzitzearekin batera (Otegi etorkinek bigarren mailako lanak egin behar dituztela esaten, kasurako), antiarrazista-plantak egiten ere saiatzen dira. Azken batean, haien proiektu gaurkotua EAJrekiko lehian oinarritzen denez, zabaldu diren diskurtso erreakzionario batzuk bere egingo dituzte. Eta, aldi berean, haien kontroletik at dauden ezkerreko sektore iraultzaileen (hots, Mugimendu Sozialistaren) hedapena blokeatzeko erradikal itxurak egiten ere saiatzen dira. Arrazakeriaren gaineko postura guztiz elektoralista da alderdi honena, eta unean-unean komeni zaienaren arabera inklinatzen dira alde batera edo bestera. Hori kontuan harturik, EH Bilduk arrazismoaren inguruko jarra nahiko apala hartuko duela iruditzen zait. Beste modu batera esanda, dimentsio handiko gatazkak sortu ezean, bigarren plano batean kokatzen ahalginduko dira, eta egoerak goia jotzen duenean, inprobisatzen saiatu.



## IDEOLOGIA ETA ZENTZU KOMUN ARRAZISTA

Testuinguru honek bere isla du Mendealdeko ideologian eta kulturaren. Ez da kasualitatea Ikerketa Soziologikoen Zentroak (CIS) edo Euskobarometroak egindako azken inkestetan immigrazioaren gaineko kezka soziala handitu izana. Baina horrek ez du esan nahi kezka hori induzitua izan ez denik. Izan ere, politikarien adierazpenak, komunikabideen bonbardaketa, sare sozialetako zurrumbilo erreakzionarioa eta mugimendu faxistak izan dira migranteen aurkako neurriak justifikatzen dituzten topiko, bulo eta estereotipoak zabaltzen ibili direnak. Horrela, zentzu komun arrazistaren aktualizazio eta hedapen garai batean gaude egun. Baina ez dezagun ahaztu prozesu hau ez dela soilik plan diskurtsibo hutsa, baizik eta egiturazkoa den tententzia bati akoplatzen zaion ideologia.

Jarraian, zentzu komun arrazistaren zenbait topiko eta bulo azertu, eta ikuspegi komunista batekin konfrontatzen saiatuko naiz.

### “Aprobetxatzera datoz”

Lehenik eta behin, hau azpimarratu beharra dago: gizarte kapitalistak eta potentzia inperialistek eragiten dituzte migrazioak. Ez lirateke migrazio fluxu hauek gertatuko aberastasuna zentroetan metatuko ez balitz eta periferian pobrezia, ezegonkortasuna, gerrak edo krisi klimatikoak eragingo ez balira. Gainera, migrazioa behartuak diren milioika langilek portzentai oso txiki bat iristen da bere kontinentetik kanpoko desplazamenduak egitera. Hau da, oso gutxi dira (dagoen behar handirako) Europaz aprobetxatzeko aukera dutenak.

Europar Batasuneko politikek, justuki, alor hau indartzeko lanean dihardute; esan nahi baita, migranteak irizpide ekonomiko zurruntara azpiratzeko lanean. Hain zuzen ere, ez migranteak Europako ekonomiaz aprobetxatzea, baizik eta burgesia izateko migrantez aprobetxatzen dena. Eta errealki horrela ari da izaten, migranteek estatuko lanpostu berrien %40 betetzen dituzten bitartean, soilik %11k jasotzen ditu laguntza sozialak (kontuan hartuta biztanleriaren %18 inguru direla, nazionalizatuak barne). Gainera, egoera irregularrean daudenek, zuzenean, ez dute laguntza askotarako sarbiderik ere.

Bestetik, kontuan izan behar da tasa handiagoa duten kasuetan, orokorrean pobrezia maila altuagoak dituzten sektoreak direlako izan ohi dela, ez faxistek dioten moduan migranteak izateagatik bakarrik. Are gehiago, jasotzen dituzten laguntza gehienak kontributiboak izaten dira (hau da, aurretiaz kotizatutako lanagatik jasotakoak).

Azkenik, soldaten eta baldintzen beherakada eragiten dutela dioten aurrean, aipatu beharra dago jada prekariedade altua duten lanetan sartzen direla. Kontua ez da migranteen presentziak sektore horiek kaskartu dituela, alderantziz baizik: sektore horietako baldintza kaskarrak dira migranteak bertara bideratzeko arrazoia. Hau da, migranteak aprobetxatzera etorri eta ekonomia nazionalaren okertzea eragin beharrean, kapitalisten irizpideetara subordinatuta daude.

Bulo hau baliagarria da klase ertainaren proletarizazioak eta soldaten beherakadak sortutako ezin-gona kanalizatzeko. Hain zuzen ere, ikuspegi honetatik begiratuta, egoera ekonomiko kaskarraren kausa ez da krisia, eta erantzuleak ez dira kapitalistak eta politikariak, baizik eta migranteak. Esan genezake azken urteetako gotortze nazionalista dela bulo arrazista hau errefortzatzen duena. Azken finean azpimarratzen dutena zera da, migranteak ez daitezela ekonomia nazionaletik onuradun atera, jarrai dezatela eskubiderik gabeko pobreak izaten.



Proletariatza iraultzailearen ikuspegitik, soldaten beherakada edo zerbitzu zein prestazio sozialen kaskartzea burgesiaren ofentsiba ekonomikoaren baitan identifikatzen ditugu. Besteak beste, krisiak eragindako austeritate politikak edo inflazioaren bidezko prezioen igoera dira egoera hau eragin dutenak. Horregatik, beharrezkoa da langileon batasuna hauspotzea (bertakoen eta migranteen artekoa, alegia) ofentsiba honen adierazpen ororen aurka borroka efektiboak antolatu ahal izateko. Klase ertainaren posizio erreakzionarioek, aldiz, klase hori pribilegio nazionalen defentsan eta migranteen aurka lerratzea dakarte eta, ondorioz, langileok fragmentatuta mantendu eta burgesiaren konplize bilakatzera garamatzate. Erreakzioaren lerroak bete edo komunismoarenugarra zabaltu, hor dago doakoa.

### **“Delinkuentzia eta segurtasunik eza eragiten dute”**

Segurtasunik ezaren mamua puzteko telebisita-elkarrizketetan zein Interneteko argitalpen erreakzionarioetan askotan errepikatzen da honako hau: “Barkatuko didazue, baina beti berdina dira”. Sortzen ari den zentzu komunaren adierazpen ona dela iruditzen zait. Nik modu honetan itzultzen dut: “Barkatu (arrazista izatea), baina gaizkile guztiak migranteak dira”. Ez dute baieztatzen migrante guztiak gaizkileak direnik, baina bai gaizkile guztiak ziurrenik migranteak direla.

Hori gezur galanta da, eta datuek ere horixe adierazten dute (gutxi gorabehera, bertakoei delituen %70 gauzatzen dituzte). Bestetik, jakin badakigu delinkuentziaren oinarrian kapitalak sortutako pobrezia, desberdintasun sozialak eta bazterketa-egoerak daudela, eta ez migranteen jatorria edo kultura. Hau da, diskurtso hauetatik seinalatzen diren delitu gehienak, hala nola, lapurretak edo okupazioak, hertsiki lotuta daude behar ekonomikoekin. Kontrara, ez da modu berean hitz egiten burgesiaz eta haren aliatu diren politikari eta mafiosoen, nahiz eta haiek izan langileriaaren aurkako krimenik handienak burutzen dituztenak.

Horregatik seinalatzen dugu migranteek delitu tasa altuagoa duten kasuetan, delitu horiek egite-

ko arrazoi nagusiak pairatzen duten bazterketa eta pobrezia izan ohi direla. Izan ere, migranteak lan tasa altuagoa izan arren, pobrezia eta langabezia tasa altuagoak ere badituzte. Arrazaren arabera lanaren banaketaren ondorioz, postu baxuenetan, lan informaletan eta behin-behinekotasun tasa handiekin aurkitzen dira; ondorioz pobrezian bukatzeko aukera handiagoa dute.

Bestetik, estatuko aparatu errepresiboen izaera arrazista ere aipatu beharra dago. Migranteei zuzendutako erregelamendu espezifikoek (CIEak, kanporatze legeak, etab.) eta aipatutako pobrezia-tasek haien kontrako jazarpena hauspotzen dute. Indar polizialen begietara, migranteak gaizkile potentzial bilakatzeko dira, eta ikerketa askoren bidez aski frogatuta dago arraza-profilaren arabera identifikazioak gauzatzen dituztela. Horrez gain, aparatu judizialean ere nabarmena da migranteen jazarpen espezifikoa; adibidez, migranteek dute erregimen prebentiboan kartzelaratutako biztanleriaren portzentajerik altuetan, nahiz eta berretortze tasa baxuagoa eduki.

Hala ere, esandako honek ez dezala hasieran aipatutakoa tapatu. Gaizkileen gehiengoa ez da migrantea; are gehiago, askoren egoera irregularrak delituak saihestera bultzatzen ditu, erregularizaziorako aukerak izateko. Horrez gain, delitu tasa inoiz baina baxuagoa dela diote datuek; hau da, faxistek diotenaren kontrara, migrante kopuru handienetako garai honetan, delinkuentzia konbentzionalaren tasa baxuenetarikoa da (nahiz eta egia den delitu batzuek gorakada izan dutela).

Diskurtso hau, azken batean, migranteen gainerako errepresioa eta kontrola justifikatzeko bitartekoa da: (potentzia) gaizkileak direlako daude kontrolatuta edo kartzelan. Bestalde, segurtasunik ezaren diskurtsoak langile guztion aurkako neurriak justifikatzen ditu, hala nola kontrol soziala areagotzea eta kaleak poliziaz betetzea.

### **“Kultura erreakzionario baten parte dira”**

Hemen azpimarratu behar den lehen elementua honako hau da: gaur egun, adierazpen kultural edo etniko oro dago logika kapitalistari azpiratuta eta, ondorioz, kapitalisten eta klase ertainen mesedera moldatuta. Beraz, ez du zentzurik kultura nazional baten gorazarre abstraktua egiteak edota batzuk esentzian besteak baino erreakzionarioagoak direla esateak. Ikuspegi komunista batetik, espresio kulturalen gaineko posizio politikoa da hartu behar duguna, kultura-adierazpen bakoitzak dituen elementu kapitalista eta erreakzionarioak konfrontatuz eta bestelako ezaugarriak mantenduz. Hala, komunistok, desberdintasun kulturalen gainetik, langile batasunaren aldeko apustua egiten dugu.

Bulo honen edukian zentratuta, nagusiki esaten da musulmanak erreakzionarioagoak direla. Biztanle musulmanei leporatzen zaizkien jarrerak, orde, ez dira musulmanak izateagatik berezkoak zaizkienak. Are gehiago, ustezko izaera erreakzionario hori demostratzeko normalean korronte fundamentalisten adierazpenak jartzen dituzte. Fundamentalismoaren indartzea, baina, ez da inondik inora langile musulmanen apustua, kontrara baizik, langile horiek zapaltzeko tresna izaten ari baita. Gainera, hein handi batean, Mendebaldeko inperialismoak hauspotutako korronteak izan dira, periferien gaineko kontrola lortzeko (adibide garbietako bat Afganistanen kasua da).

Beraz, mundu mailako erreakzioak herrialde musulmanetan ere bere adierazpena aurkitzen duen arren, erreakzioa ez da herrialde horien elementu eskusibo bat. Are gehiago, Mendebaldeko erreakzionarioak eta faxistak dira etengabe biztanle musulmanei jarrera matxistak esleitzen dizkietenak, nahiz eta beraiek izan erreakzioaren bertsio europarra (matxista eta misoginoa) indar betez

***Migranteak “aprobetxatzera” datozela zabaltzea baliagarria da klase ertainaren proletarizazioak eta soldaten beherakadak sortutako ezinegona kanalizatzeko. Hain zuzen ere, ikuspegi honetatik begiratuta, egoera ekonomiko kaskarraren kausa ez da krisia, eta erantzuleak ez dira kapitalistak eta politikariak, baizik eta migranteak***

## ***Jakin badakigu delinkuentziaren oinarrian kapitalak sortutako pobrezia, desberdintasun sozialak eta bazterketa-egoerak daudela, eta ez migranteen jatorria edo kultura***

bultzatzen ari direnak. Edo, migranteek gauzatutako sexu erasoak arrazismoa zabaltzeko erabiltzen dituzten bitartean, indar polizialeko erasotzailetasun aurrean isilik gelditzen dira. Lehen aipatu bezala, komunistok jarrera erreakzionario oro borrokatzen dugu, datorren lekutik datorrela ere.

Bulo honek beste urrats bat gehiago dakar migra- teen eta, bereziki, langile musulmanen diszi- plinamentuan, irizpide ekonomikoez gain, irizpi- de kulturalak ere (esplizituki arrazistak) ezartzen baitira pertsona horien bazterketa justifikatzeko.

Amaitzeko, ulertzen dugu kultura nazionalak ez direla bere horretan homogeneoak; alegia, hainbat kulturaren arteko harremanen produktu izan di- rela. Ondorioz, jatorri ezberdineko langileen ba- tasunak dibertsitate kulturala errespetatu eta eli- katzeko bitartekoa izan beharko luke, baita gurea bezalako kultura minorizatu baten kasuan ere. Az- ken finean, printzipio komunistak dira horretarako alternatiba bakarra, logika kapitalistatik beti era- biliko baitira ezberdintasun kulturalak langileon arteko etsaitasunak sortzeko.

### **Arrazismotik supremazismora**

Bulo hauen bitartez ematen zaio forma egungo zentzu komun arrazistari; beraz, egungo ideologia arrazistaren osagai nagusienetakoak dira. Horre- la justifikatzen da dena: aprobetxatzera datozenek, pobrezian mantendu behar dira; gaizkileak direnez, erreprimetuta mantendu behar ditugu, eta kultura erreakzionario baten parte direnez, urruti manten- du behar ditugu. Zentzu komun horren fruituak, beraz, argiak dira: bigarren mailakoak izan edo, bestela, joan daitezela haien herrialdeetara. Muga- ren alde batean edo bestean patua bera da: pobre- zia, lanik okerrenak, kartzela edo heriotza.

Oharpen bat egin nahiko nuke auzi honi dago- kionez. Zentzu komun arrazista hedatzen den hei- nean, ikuspegi supremazistek geroz eta oihartzun handiagoa izango dute. Orain arteko ikuspegitik, migranteak errespetatuak izan daitezke menpeko sujetu bezala mantentzen badira (migrante zin-

tzoak badira); posizio supremazistetatik, aldiz, zu- zenean etsai gisa identifikatzen dira eta gorroto irrazionalez pu- tzen dute panorama. Menpeko man- tendu baino, zuzenean suntsitu egin behar dira lan- gileriaren sektore hauek. Posizio horietatik, beraz, migranteen aurkako erasoak hauspotu egiten dira.

Horregatik iruditzen zait arreta jarri beharre- ko auzia dela, ideia supremazistak ez baitira ideia soilak, inplikazio praktikoak dituzte. Horrela, gi- zarte zibileko sektoreak jarrera aktiboagoa izate- ra bultzatzen dituzten ideiak dira, eta horrek bi- dea irekitzen dio eskuadrasten edo progromoen fenomenoari. Are gehiago, langile arrazializatu- en defentsa egiten duten pertsonak ere jopuntuan jartzen dituzte pixkanaka (besteak beste, militan- te antifaxista eta komunistak). Posizio arrazisten erradikalizazio bat dakar supremazismoak; beraz, langileen fragmentazioaren eta kapitalismoko hie- rarkia sozialaren defentsa sutsua egitea.

### **PROPOSAMEN IRAULTZAILEA**

Panorama honen aurrean, arraza-zapalkuntza- ren eta arrazismoaren auzian ere alternatiba ko- munista gorpuzten joateko zenbait hausnarketa plazaratu nahiko nituzke.

Aipatutakoaren haritik, arrazakeriarekin amai- tzeko ezinbestekoa da kapitalismoa eta haren orde- na inperialista suntsitzea helburu duen estrategia iraultzailea artikulatzea. Proposamen interklasisten sostengua Europako posizio inperialista den heinean, posizio hori bere horretan mantentzean oinarritzen dira eta, beraz, arraza-zapalkuntza be- tikotzean. Gutxirako balio dute erreformismoaren ezkerreko adierazpen erradikalek, are gutxiago gainbehera inperialistaren ondorioz erreformak gauzatzeko marjina izugarri murriztu den honetan. Soilik proletariotza iraultzaileak du gizarte hau eta bertako zapalkuntzak gainditzeko potentzia politi- koa eta programa historikoa. Hori kontuan hartu- rik, independentzia politikoa da arraza-zapalkun- tza gainditzeko bide bakarra.



***Mundu mailako erreakzioak herrialde musulmanetan ere bere adierazpena aurkitzen duen arren, erreakzioa ez da herrialde horien elementu eksklusibo bat. Are gehiago, Mendebaldeko erreakzionarioak eta faxistak dira etengabean biztanle musulmanei jarrera matxistak esleitzen dizkietenak, nahiz eta beraiek izan erreakzioaren bertsio europarra***

Norabide horretan, beharrezkoa da estatu eta alderdiekiko independentea den antolakuntza iraultzailea artikulatzea. Hau da, alderdi komunista eraikitzea, bai eta proletarioen artean komunismoa hegemoniko bilakatzea ere. Alderdi komunistak ikuspegi internazional batetik jokatzeko ezinbestean, munduko langileon batasuna baita bere jardunaren printzipioetako bat. Beraz, beharrezkoa da langileon antolakuntza independentea hedatzea kapa proletario guztietan, haren jatorria edo kultura edozein dela ere. Klase ertainak ordezkatzeko duen nazionalismoa alboratu eta zentzu internazionalista batean jokatzeko.

Batasun iraultzailea beharrezkoa bada arraza-zapalkuntza gainditzeko, arraza-zapalkuntzaren aurkako borroka artikulatzea ere ezinbestekoa da batasun hori lortzeko. Hau da, langileon fragmentazioa sakontzen duten dominazio adar guztiak konfrontatu behar ditugu, nahiz eta momentuko indarrek baldintzatu horretarako gaitasun zehatza. Beraz, testuan aipatu ditudan zenbait elementu izan beharko genituzke jopuntuan. Batetik, estatuen politika inperialistak salatu eta konfrontatu behar ditugu, eta periferietako langileen borroka babestu. Adibide on bat Palestinaren aldeko azken urteetako borroka izan da. Bestetik, migranteen aurkako neurri eta bitartekoen kontra jardun behar dugu. Horrela, pairatzen duten arrazan oinarritutako lan banaketaren eta eskubide faltaren aurka egin behar dugu; hau da, autodefentsa sozialista artikulatzen joan behar dugu, langileria osoaren eskubideen zein bizi baldintzen alde, tartean migranteenak. Azkenik diskurtso arrazisten aurkako lan ideologikoa egin beharra daukagu (datorren lekutik datorrela) eta diskurtso horren muturreko adierazpenen, hots, faxismoaren, aurkako borroka indartu behar dugu.

Programa komunistaren potentzial askatzailean berresteko, Harry Haywood militante afroamerikarraren hitza hauekin bukatuko dut artikulua: “Dagoeneko munduaren seiren batean, Sobietar Batasunean, alegia, langileek eta nekazariak beren gobernu propioa ezarri dute. Tsarren azotepean ahuenka ari ziren nazionalitate zapaldu guztiak askatu dituzte. Egun, Sobietar Batasunean, elkar gorrotatzen edo elkarrekiko mesfidati izaten ikasi zuten 132 herri elkarlanean ari dira, berdintasun politiko eta sozial osoz, gizarte sozialista bat eraikitzeko. Han, langileek suntsitu egin dute 'arrazagorrotaren' eta 'arrazagutxiagotasunaren' gezur kapitalista. Pozoi kapitalista horren zantzurik txikiena erakusten duen langile oro fabriketatik kanporatzen dute, bi ingeniari estatubatuarrek duela gutxi ikasi duten eran. Langile sobietarrek primerako adibidea eta benetako bidea erakutsi ditute langile estatubatuarroei, beltz zein zuri izan”. ●





---

Argitalpena

**2025EKO ABENDUA**

EUSKAL HERRIA

---

Koordinazioa,

erredakzioa

eta diseinua

**GEDAR LANGILE**

**KAZETA**

---

Web

**GEDAR.EUS**

---

Sare sozialak

TWITTER ETA

INSTAGRAM

**@ARTEKA\_GEDAR**

---

Kontaktua

**HARREMANAK@**

**GEDAR.EUS**

---

Harpidetza

**GEDAR.EUS/**

**HARPIDETZA**

---

Edizioa

**ZIRRINTA**

**KOMUNIKAZIO**

**ELKARTEA**

AZPEITIA

---

Lege gordailua

**D-00398-2021**

---

ISSN

**2792-453X**

---

Lizentzia



---

**Argitaratzaileen oharra:** Artekean ageri diren ideiak, baieztapenak eta ondorioak artikuluko bakoitzean sinatzen duten egileek dira.



